

Herririk Herri |4|

'Dantzaroan' batuko dira Durangaldeko dantzariak, zapatuan, Durangon

Kirola |16|

Klubeko aurkezpen ofizialean ereserki berria estreinatuko du bihar DRTk



Berbaz |8|

S. Zuazubiskar: "Hirigintza genero ikuspegiagaz uztartu dugu Abadiñon"

Errotaritxuena auzoaren inaugurazioa Durangon

> Eraikitako 85 etxebizitzaren eskriturak astelehenean hasiko dira sinatzen

> Novella Portugaleteko eskultorearen obra bat ere ipini dute etxadian

02



Inaugurazioan Durangoko Udaleko zinegotzi ugari bildu dira, baita auzoari izena jarri dion Jose Luis Lizundia ere. Kepa Aginako

Zelaietan ospatuko dute Artzain Eguna, domeka honetan


Abadiño• Artzain Eguna "herritar guztiei, kaletarrei ere zabaltzeko asmoz" Urkiolatik Zelaietara lekualdatu dute udal ordezkariak eta Acol elkarteko kideek. Jaiaz gainera, artzainen bizimodua ezagutzera ematea da domekarako eratutako ekitaldiaren asmoa.

06

Dozena bat kantako 'Amaraunak' diskoa aurkeztu du Xarmak

KULTURA• Berriz eta Ondarroako bina musikarik sortu zuten Xarma taldea, orain hiru urte. Asteon, iazko udan grabatu eta udahonetan plazaratu duten *Amaraunak* diskoa aurkeztu digute. Diskoa kalean dagonetik eskainiko duten lehenengo zuzeneko gaurkoa da, Durangoko Goienkaleko jaietan.

11



• Durangaldea

Berbalagun martxan lurreta, Atxondo, Izurtza eta Mañarian

4

• Mallabia

Trabakun pasabidea eskatu diote Batzar Nagusiek Aldundiari

7

• Otxandio

Euskara Eskolan izena emateko epea irailaren 27ra arte

7

• Izurtza

Emakumeentzako jabekuntza saioen berri eman dute

7



hartz klinika

Ekoden

Jatean hartz-protesiek ikararik ez egitea gura baduzu, geuregana jo. Kirurgia egin eta biharamunean bertan, "all on four" konponbide **behin betikoa** erabilita, lau inplantegaz bakarrik, protesia hezurri **ondo lotuta izango duzu**

**AZKARRA - MERKEA
MINIK ERAGIN BARIK**

www.clinicaekoden.com

Arkotza kalea, 4 behea • DURANGO • Tel.: 94 621 78 22



**EZ GARA INOREN FRANKIZIA
ARDURA OSOZ DIHARDUGU**

HERRIRIK HERRI >

DURANGO

Errotaritxuena auzune berria inauguratu dute

Astlehenean hasiko dira dagoeneko eraikita dauden 85 etxebizitzetako eskriturak sinatzen

Saso batean Odi Bakar enpresa zegoen inguru-berria 'Errotaritxuena' izena hartu duen auzunea inauguratu zuten atzo. Felix Arkarazo aktoreak gidatutako aurkezpen ekitaldira batu ziren, besteak beste, Durangoko udal alderdietako zinegotziak, Juanjo Novella eskultorea eta

Cedrunek. Alde guztiek erakutsi duten "borondate ona" ere azpimarratu zuten. Urrian, ondoan dauden besteluzati bitan 90 etxebizitza libre eta 58 babes ofizialeko egiten hasiko da, hurrenez hurren, Sukia enpresa. Lan horiek egiteko exekuzio epea urte bi eta erdikoa da.

Jose Luis Lizundiak auzunearen izenari buruz azaldu zuenez, "inguru honetan Errotaritxuena izeneko baserri bat egon zen, eta izen hori berreskuratu dugu".

Etxebizitzaren ondoan Juanjo Novellaren eskultura ipini dute. Orain hamar urte hartu zuen jorari jarraituz lan "transparentea" osatu du, baina era berean "besteekiko ezberdina da, neurririk egindako trajealakoa". Iaz Abudabín —Arabiar Emirerri Batuek— antzeko eskultura bat aurkeztu zuten, 'Durango' izenekoa. Honako honi 'Ognarud' izena ipini dio

Jose Luis Lizundia auzuneari izena ipini dion euskaltzaina. Durangoko Orfeoia ere hainbat abesti eskaini zituen.

Dagoeneko eginda dauden 85 etxebizitzaren eskriturak "astlehenean bertan" sinatzen hasiko direla azaldu zuen konpentsazio-batzordeko ordezkari Joseba

Ordenantza fiskalak bere horretan uztea proposatu du EAJK

"Ahal duen heinean, krisi egoera honetan" udalak familiei lagundu behar diela uste dute

Aitziber Irigoras alkateak prentsaurrekoa eskaini zuen atzo, gobernu taldeak 2011ko ordenantza fiskalen gainean egin duen proposamena aurkezteko. Tasak bere horretan uztea, "izoztea", planteatu du, "familien egoera gehiago ez zaitzela" helburu izanda. Krisiak eskualdean "egoera gaitza"

Gaia urri amaierako udalbatzan lantzea itxaroten du gobernu taldeak

sortu duela-eta, udalak ere "ahal duen heinean" herritarrei lagundu egin behar diela uste du gobernu taldeak.

Irigorasen berbetan, proposamen hau gainerako alderdiei aurkeztu eta batzordean eztabaidatzea izango da hurrengo pausua. Gaia, urria amaieran udalbatzan lantzea itxaroten du gober-

nu taldeak. Horren ondoren, aurrekontuen prozesuari ekitea aurreikusiko dute, aurreratu zuenez.

Nobedadeen berri

Proposameneko nobedadeen inguruan ere mintzatu zen Irigoras. "Adierazgarriena", bere iritziz, hegaztiak etxeetan habiak egitea ekiditea helburu duen laguntza da, DAZ elkarteak proposatutakoa. "Hegaztien kopuru orokorra guztiz kontrolatzea" gura dute neurriagaz. Eraikinetako azken pisuen eta ganbaren fatxadetan konponketak egiteko ordaindu beharreko hiru tasen %95 hartuko luke bere gain udalak, habientzako leku posibleak balira. ■ M.O.

Hegaztiak etxeetan habiak egitea ekiditea helburu duen laguntza da berritasunetako bat, DAZek proposatu zuena



Durangoko Udaleko alderdietako zinegotziak egon ziren aurkezpen ekitaldian. Kepa Aginako

—Durango alderantziz irakurritako— eskultura bien arteko ispilu efektua lortu guran.

Aralar alderdiak, idatzi batean adierazi duenez, Durangon 1.200 lagunek izena emanda du Etxebi-

Auzunean Juanjo Novella Portugaleteko eskultorearen obra bat ipini dute

den eta horrek "behar larria dagoela erakusten du". Diotenez, "58 etxebizitza publiko eraikitzea albiste ona da, baina eskubide hori bermatzeko erronka etxebizitza publikoak alokatzea da". ■ J.D.

Motorra eta jana batuko ditu Más Curvas-ek etzi

Más Curvas motozaleen elkarteak 'motorharretako' ekimenaren seigarren aldia ospatuko du domekan. Más Curvasek Montorreta pabiloietan duen lokalean ipini dute hitzordua, 09:00etan. Orduantxe hasiko da ekimenetarako izen-ematea, 10:00ak arte, 5 euroan.

Ibilbidearen ondoren, luntxa egingo dute eta motor materiala zozketatu

Ondoren, motorrak hartu eta prestatutako ibilbidea osatzeari ekingo diote. 12:00etan bueltatuko dira Durangora, eta parte-hartzaile guztientzako luntxa eskainiko dute (urdaiazpikoa, arrautzak, ardoa...). Jan-edanagaz gozaten duten bitartean motor materiala (kaskoak, esku-larruak...) zozketatuko ditu motorzale elkarteak. Horrez gainera, Paulaner bolatokia dohainik afaltzeko hiru txartel ere zozketatuko dituzte bertaratuko diren artean. ■ J.D.

Musika, dantza eta festa giroa nagusi Goienkaleko jaietan

Besteak beste, Humphrey Cao, Zebel, Tres41 eta Xarma taldeen kontzertuak antolatu dituzte

Durangoko +Dendak elkarteak hogeitabat komertzio eta tabernagaz batera eratutako jaiak 10.000 euroko aurrekontuarekin izango dute aurten. Atzo hasi ziren Goienkaleko jaiak, aurrekuagaz eta txaranga batez. Barikuan, eguerdiko 12:00etan, lore eskaintza egingo zaio Mesedeetako Amabir-

11:30etik aurrera euskal dantzak eta Tabira musika bandaren kontzertua daude. 14:00etan sardina-jan herritarra egingo dute. Arratsaldean mus eta igel txapelketak jokatu dituzte, eta gauean Humphrey Caoren kontzertua izango da entzungai. Gauerdik aurrera gazteentzako diskotekagaz gozatu ahal da.

Umeentzako puzgarri eta jokoak ere atonduko dituzte zapatuan, 17:00etan; 'balance bike' modalitatean ibiltzeko bizikleta pista ere ipiniko dute. Domekan, gainera, Gorriti eta bere animalien ikuskizuna izango dute aukerarik, 17:00etan. Txokolate-janagaz amaituko dira jaiak. ■ J.D.

Zapatu eguerdian jaietako ekitaldirik jendetsuenetakoa egingo dute: sardina jana

ginari, eta gero bazkaria eta txitxarilloa izango dira bertaratzen direnentzat. Gauean, eskualdeko rock taldeek hartuko dute protagonismoa: Zebel, Tres41 eta Xarma taldeak zuzenean ikusteko aukera egongo da, Goienkalen egokituko duten eszenatokian.

Zapaturako, hainbat ekitaldi eratu dituzte antolatzaileek.

Umeentzako puzgarriak egongo dira, eta bizikletan 'balance bike' modalitatean probatu ahal izango dute



Joan zen zapatuan Durangoko Zapaburu gazte konpartsa aurkeztu zuten Santa Ana plazan. Sanfausto jaiak abiapuntu moduan hartuta, jendea lokaletatik atera eta kaleak gaztetzeko helburua dute urte osoan antolatuko dituzten ekimenen bitartez. Orain dagoen aisialdirako aukerakin korforme ez, eta ideia eta proposamen berriak plazaratzea ere gura dute.

Hainbat ekitaldi prestatu dituzte jaietarako, baina hori hasiera besterik ez dela diote

17 eta 25 urte bitarteko 60 bat gaztek osatzen dute Zapaburu konpartsa oraingoz

Hainbat hilabete joan dira lehenengoz batzen hasi zirenetik. Aisialdirako gaur egun dagoen eskaintza ez da nahikoa euren ustez, eta "geure alternatiba propioak eraikitzeko ordua dela iruditu zaigu", azaldu du Asier Bilbao konpartsa kideak.

Sanfausto jaiak hasiera moduan hartu eta hainbat ekimen prestatu dituzte: "Kalean, Gazte-txean eta gazteonak diren beste

hainbat esparrutan ere arituko gara". Esaterako, beraiek jaurtiko dute aurten txosnetako txupinazoa. Hurrengo egunean ospatuko duten Gazte Eguneko ekitaldiak ere antolatuko dituzte. Azoka Ekologikoa izaten den egunean ere, umeentzako jolasak prestatuko dituzte. Horrez gainera, erreka jaitseran parte hartuko dute, eta txosnagunean karpa ipiniko dute konpartsa gainera informazioa jakinarazteko.

Oraingo 17 eta 25 urte bitarteko 60 bat lagun batu izan dira, eta asmoa apurka-apurka kopuru hori handitzea da. Izan ere, "hasieran pentsatzen genuen kontrara, konpartsa batu diren gazteek konpromiso handia eta lanerako gogo bizia erakutsi dute".

Ekimenak urte osoan zehar Asmoa urte osoan zehar ekimenak antolatzea da: Gabonetan, inauterietan, Liburu eta Disko Azokan... Euren mugimenduen eta ekitaldien gaineko berri emateko webgunea ere sortu berri dute: www.zapaburu.net. ■ J.D.

Euren ekitaldien berri emateko webgunea sortu dute: www.zapaburu.net

Gazteen aisialdirako bilgune berria: Zapaburu konpartsa

Jaiak abiapuntu hartuta, aisialdi alternatiboak eskaintzea dute helburu



Joan zen zapatuan egin zuten jendaurreko aurkezpen ofiziala Santa Ana plazan.

DIURRETA

Tratu onen aldeko mintegia antolatu du Anderebidek

Irailaren 27a baino lehenago aurretik eman behar da izena ikastarora zein Gasteizko irteerara joateko

Ikasturte hasierarako pare bat ekin-tza prestatu ditu duela gutxi urte bat bete duen Anderebide emakume elkarteak. Urrirako ekitaldi bi antolatu dituzte. Hilaren 20an

Indarkeriaren kontrako mintegia eguaztenetan egingo dute, 16:30etik 18:00etara

Indarkeriaren aurkako eta tratu onen aldeko mintegia hasiko dute Ibarretxe kultur etxean, eta urriaren 23rako irteera antolatu dute Gasteizera.

Mintegia Mirian Ociok gidatuko du eta sei eguaztenetan izango da, 16:30etik 18:00etara. Hilaren 23ko irteeran, berriz, Gasteizko katedrala eta hiria bera ezagutzeko bisita gidatua egingo dute, goizeko 09:00etan Maspeko autobus geltokitik irteera.

Ikastarorako eta irteerarako partaide kopurua mugatua izango da, eta hasi da izena emateko epea. Goiuria Kultur Gunean eman daiteke izena, eta horretarako azkeneko eguna hilaren 27a izango da. Iurretan erroldatuek eta Anderebideko bazkideek deskontuak izango dituzte. ■ A.U.

Langile gehiago ez kaleratzeko eskatu dute Permarren

Hilaren 13an kaleratutako langileari elkartasuna adierazteko elkarretaratzeak egin dituzte, asteon, Permar enpresan.

Bulegoetako langile bat "bidegabeki" kaleratu dutela salatu dute bere lankideek, eta Permarreko hiru delegazioetan ere horrelako kaleratzeak egon direla. Kaleratzea bidegabeki egindakoa dela onartu du enpresak, eta berrogeita bost eguneko kalte-ordaina ordainduko du. ELAko ordezkari Mikel Elizburuk azaldu duenez, "legeak kaleratze merkeak egitea errazten du, eta jarrera horregaz ez jarraitzea eskatzen diogu Permarri". ■ A.U.

ATXONDO

Suteetarako 71 detektagailu ipini dituzte nagusien etxeetan

Suteen prebentziorako informazioa eman eta galdeketa bat egin diete herriko nagusiei

Etxean gerta daitezkeen istripu edo suteen inguruko formazioa jaso dute Atxondoko adineko pertsonak. Udaleko gizarte zerbitzuetatik abiatutako egitasmoan, 49 etxe bisitatu dituzte, eta suteak detektatzeko aparailuen berri eman dute A Tiempo enpresako kideek. 71 detektagailu instalatu dituzte. Horrez gainera, etxeetan egon daitezkeen arazoekin eta pertsona horien beharrezkin txosten bat eratu dute.

Bakarrik edo pertsona nagusiagoekin bizi diren 65 urtetik gorako atxondarrek jaso dute aipatutako bisita. Txostenean

ageri denez, bisitatutako etxeen % 18k ez du pasatu gasaren derrigorrezko errebisioa.

Bisitatutako pertsonen pre-miak ezagututa, orain txostena udaleko gizarte zerbitzuetara pasatu dute. David Cobos alkateak azaldu duenez, "Etorkizuneko plangintzetan beharizan horiek kontutan hartu gura ditugu". ■ A.U.

Bisitatutako etxeen %18k ez du pasatu gasaren derrigorrezko errebisioa

caribu
www.caribu.es

Juan Antonio Unzueta, 4
Matiena • 94 620 43 24

Podologoia

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podologoia 198. Elkarlagokidea

DURANGALDEA

Eskualdeko dantzak plazaratuko dituzte bihar Ezkurdin

Gerediaga elkartearen 'Dantzaroa' ekimenak 130 dantzari batuko ditu

Gerediaga elkarteak antolatuta, *Dantzaroa* Durangaldeko dantza agerraldia egingo dute bihar Durangon. Bigarren urtez antolatuko duten ekimenak oraindik jende askok eza-

Ezkurdin Durangaldeko sei herritako 130 bat dantzari batzea itxaroten dute

gutzen ez dituen eskualdeko dantzak zabaltzea du helburu.

Ekitaldia 19:00etan hasiko dute, kalejira batez. Durangoko udaletxe aurrean irten eta Santa Ana plaza, Goienkale eta Andra

Mariatik behera Ezkurdiraino joango dira guztiak ilaran. Dantza agerraldia, berriz, 19:30ean egingo dute. Guztira, zortzi dantza erakutsiko dituzte: *Agintarienta*, *Banangoa*, *Makiljokoa*, *Garaiako Gernikako arbola*, *Arkudantza*, *Zintza dantza*, *Txotxongilo dantza* eta *Nesken soka dantza*. Agerraldiaren amaieran, partaideentzat zein ikusleentzat baserriko oilaskoa dastatzeko aukera eskainiko dute.

19:00etan kalejira abiatuko dute Udaletxetik Ezkurdira eta han erakutsiko dituzte dantzak

Guztira, 130 dantzari batuko dira. Izurtza, Mañaria eta Garaitik dantza talde bana etorriko da; Abadiño, Berriz eta Durangotik, berriz, bina talde.

Folklore aberatsa

Durangaldea dantza eta kanta folklore aberatsa gorde du. Garain, esaterako, dantzari eta herritarrek prozesioan joaten dira, eta Santiagoren irudiaren ohorez *Gernikako arbola* dantzatzen dute. Elorrion Errosarioko Ama Birjinaren aurrean errebonbiloekin arma alardea egiten dute. ■ J.D.



Iaz Andra Mariko elizpean gauzatu zuten Dantzaroa ekimenaren lehenengo aldia. Kepa Aginako

Baldintzarik bako espetxea Aierbe eta Garmendiarentzat

Fernando Grande Marlaska epaileak agindu bera eman zuen bederatzia atxilotuentzat

Ekimen zuzendaritzako kide izatea leporatuta joan zen astean atxilotu zituzten Urko Aierberentzako, Egoitz Garmendiarentzako zein gainerako zazpi atxilotuentzako

Durangon eta Otxandion manifestazioak abiatu zituzten agindua jakin aurretik

baldintzarik bako espetxea agindu zuen Fernando Grande Marlaska epaileak asteburuan.

Urko Aierbe (Durangon bizi den donostiarra), Rosa Iriarte, Ugaitz Elizaran, Joxe Aldasoro,

Sandra Barrenetxea eta Eneko Compains baldintzarik barik espeteratu zituen bariku gauean Marlaska Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaileak. Zapatuan deklaratu zuten Egoitz Garmendia otxandiarrak, Erica Bilbaok eta Aniaiz Ariznabarretak. Hauentzako ere agindu bera eman zuen.

Elkartasun adierazpenak Atxiloteten harira, bariku eguerdian 250 lagunek manifestazioa egin zuten Durangon. Otxandion ere "inkomunikazio egoera eta tortura arriskua" salatuzko prentsaurrekoaren ondoren, manifestazioa egin zuten. ■ J.D.



Otxandion manifestazioa egin zuten bariku arratsaldean.

Berbalagun Iurreta, Atxondo, Izurtza eta Mañarira zabaldu dute

Amankomunazgoko herri denetara zabalduko du egitasmoa AEK-k; izena emateko epea hasita dago

AEK-ksustatzen duen Berbalagun mintza-praktika programetan izena emateko epea zabaldu dute irailean eta urrian. Egitasmoak Durangaldeko euskararen erabilera esparruak zabaltzea, euskaldunok elkar ezagutzeko guneak eskaintzea eta euskara ikasten dabiltzan edo ibili diren ikasleei praktikatzeko aukera gehiago eskaintzea du helburu. Izen-ematea doakoa da.

Irailean eta urrian eman daiteke izena, eta doakoa da; hala ere, urtean zehar ere apuntatu daiteke

Aurten egitasmoa Durangoko Amankomunazgoa osatzen duten herri guztietara zabalduko du AEK-k. Beraz, Berriz — Amankomunazgoan ez dagoen arren — Elorrio, Zaldibar, Durango eta Abadiñon ez eze, Atxondo, Iurreta, Izurtza eta Mañaritan ere, herrian bertan, Berbalagunen parte hartzeko aukera egongo da.

Izen-emateari dagokionez, honako tokietan egin ahalko da: Durangaldeko udalerrietako euskara zerbitzuetan eta harrera bulegoetan, AEKren euskaltegietan, eskualdeko euskara elkarteetan,

eta Durangoko Udal Euskaltegian zein Hizkuntza Eskolan. Harremanetarako e-maila ere ipini dute: durangaldea@aek.org.

Berbataldeak

Berbalagunen helburuak gauzatzeko ekimen nagusi bi antolatuko dituzte. Batetik, Berbataldeetan euskaldunzaharrak eta euskaldunberriak batuko dira, azken hauei naturaltasunez euskaraz berba egiteko aukera eskainiz. Taldeek eurek erabakitzen dute noiz eta non batu. Iaz 200 lagunetik gora ibili ziren 32 taldetan.

Bestetik, Berbalagun proiektuan parte hartzen duten edo elkarlanean dabiltzan eragileak euskarazko kultur eskaintza zabal eta duina egin dute: Euskararen Agenda. Ekintzen informazioa berbalagunei zein euskaltegieta-ko ikasleei zabalduko diete. ■ J.D.

Informazio gehiago jasotzeko e-posta ipini dute aukeran: durangaldea@aek.org

Berbataldeek euskaldunzahar eta euskaldunberriak batuko dituzte, azken hauei euskaraz jarduteko aukera eskainiz

IZURTZA

Plan orokorrari buruzko herri-batzarra egin zuten atzo

Herriko etxeetara udaletik zabalduko informazio orrietan zeterren jasota herritar guztientzako atzo iluntzeko batzarrera gerturatzeko deia. Herriko ordenamendua berrikusteko martxan ipinitako prozesuan, herritarrek parte hartzeko izango dituzten bideak aurkeztu zizkieten, besteak beste, izurtzarrei.

Herri-batzarretan zelan parte hartu ahalko duten herritarrek azaldu zuten herriko ordenamendua berrikusi eta berridazteko ardura duen lantaldekoek. Herriaren etorkizunari begira, ordenamendu orokorra berrikustek daukan garrantzia herritarrei helarazi guran, planak eta berau aldatzeko prozesuak zertan diren azaldu zuten atzoko herri-batzarrean. ■ I.E.

Ordenamendua berrikusteko prozesua zertan datzan azaldu zuten atzoko herri-batzarrean

MAÑARIA

Irailaren 30era arte eman daiteke izena Haurreskolan

Ikasturte berriari azaroan, abenduan, urtarrilean edo otsailean ekin gura diotenen, irailaren 30era arteko epea izango dute Haurreskolan izena emateko. Aurreko hilabeteetan ere herriko haurreskolan egon ziren 9 umek hasi dute ikasturtea dagoeneko.

2009ko martxoan, Haurreskola zabaldu ahal izateko gutxieneko ume kopuruagaz (hiru umegaz) ekin zioten Mañariko Haurreskolan bideari, eta zero eta hiru urte bitarteko herriko bederatzia ume hartzen dituzte urte eta erdiren ondoren.

Aurreko hilabeteetan ere bertan ibili ziren herriko 9 umek ekin diote ikasturteari Mañariko Haurreskolan

Bakoitzean hamar ume hartzeko prestatuta dauden gela bi ditu eskolak

Bakoitzean hamar ume hartzeko prestatuta dauden gela bi daude herriko gurasoen eskariari erantzunez zabaldu zuten Haurreskolan. Zero eta hiru urte arteko herriko umeen erdia herriko Haurreskolan dabilela eta, herrian harrera oso ona eduki duela dio udal gobernua. ■ I.E.

2010/2011 ikasturtea



Orain duzu **Aukera!**

4. mailako(4. HE) ikastaroak

Urritik ekainera, goizez edo arratsaldez > 465 €

Autoikaskuntza

Urritik ekainera > 450 €

Ikastaroak Barnetegian

IKASTAROAK	Barnetegian	Pentsio erdian
Urriaren 4tik azaroaren 12ra	702,54 €	634,50 €
Azaroaren 15etik abenduaren 21era	624,48 €	564,00 €
Urtarrilaren 10etik 28ra	390,30 €	352,50 €
Urtarrilaren 31tik otsailaren 25era	520,40 €	470,00 €
Otsailaren 28tik martxoaren 25era	520,40 €	470,00 €
Martxoaren 28tik apirilaren 20ra	468,36 €	423,00 €
Maiatzaren 2tik 31ra	572,44 €	517,00 €
Ekainaren 1etik 30era	572,44 €	517,00 €

Larrea auzoa, z/g ▪ 48340 Amorebieta ▪ Bizkaia

☎ 94 630 83 04 ▪ Faxe 94 630 89 09

barnetegi@aurtenbai.com ▪ www.aurtenbai.com



Zornotzako Barnetegia

ABADIÑO

Artzainen bizimodua ezagutzeko hitzordua domekan, Zelaietan

Herrian bertan ospatuko dute lehenengoz Artzain Eguna, irailaren 26an

Udaletxean egin zuten prentsaurrekoan luzatu zuten atzo Navarro alkateak eta artzainen Acol elkarteak eta artzainen Acol elkarteak eta artzainen Acol elkarteak domekan Zelaietako Ferialekuan ospatuko dute Artzain Eguna gozatzera joateko proposamena. Orain arteko hamar edizioetan Urkiolan ospatu duten eguna

“herritar guztiei, kaletarrei ere zabaltzeko asmoz” antolatu dute aurtengo Artzain Eguna herrigunear: domekako lako egunetako jai eta ospakizunetaz gainera, Solanak adierazi duenez, artzainen bizimodua eta arazoez ere jabetu daitezten herritarrak. Artzainen ekoizpenen salmenta postuen azokaz gainera,

artzainen eguneroko zereginen erakustaldiak egingo dituzte irailaren 26ko hitzorduan; gazta zelan egiten den, ardiei ilea zelan moztzen dieten edo artilea zelan lan-tzen duten erakutsiko dute. Gainera, gazta dastaketa herrikoia zein Bizkaiko gaztaren lehiaketa eta herri-bazkaria antolatu dituzte Artzain Egunerako. ■ I.E.



ACOL elkarteak ordezkaritza biak eta Abadiñoko alkatea, atzoko aurkezpenetan.

“Datorren urtera arte” agurtu zituzten Aitte Kurutzekoak domekan



Bost eguneko jaiak amaitutzat eman zituzten joan zen domeka iluntzean Zelaieta auzoan: txirikila jokoaren erakustaldia eta tortilla txapelketa izan ziren auzoko jai batzordeak antolatutako egitarauko azkeneko ekitaldi biak. Ohiturazko eta urteroko ekitaldietan zein aurtengo lehenengoz antolatu dituztenetan herritarren parte-hartzea zabala izan da Aita Kurutzeko jaietan.

ELORRIO

Kiroldegia ezin izango dute astelehenean zabaldu

Igerilekua, beranduenez, urri hasieran zabaltzen ahaleginduko direla adierazi du Elorrioko Udalak

Irail hasieran kiroldegi osoa itxi zuten eraberritze lanen lehenengo faseari ekiteko. Igerilekuko aldagelak eta gimnasio hormak zein zorua berriztatzea zen helburua. Kontratuan agertzen denaren arabera, kontratistek urriaren 12ra arteko epea dute lanak burutzeko, baina irailaren amaierarako prest egongo zirela esan zieten udal arduradunei: “Ezin da esan kontratua ez dutenik bete, baina emandako hitza ez dute bete”, dio Niko Moreno alkateak. Igerilekua “ahaliketa arinen” zabaltzen saiatuko direla jakinarazi du: “Lan

txiki batzuk falta arren, zabaltzea posible den une berean irekiko dugu igerilekua; urriaren hasieran, posible bada”.

Izen-ematea Ludotekan

Bestalde, iaz egoitza berria estreinatutako Ludotekan izena emateko epea irailaren 30era artekoa da. Ludoteka hiru eta hamabi urte arteko gaztetxoek zuzenduta dago. Elorriarrak diren umeek zein Elorrioren ikasten ari direnek erabili dezakete. Urritik 2011ko ekainera arte egongo da zabalik, 17:00etatik 19:45era. ■ J.D.

ZALDIBAR

Dantza tradizionalen ikastaroan izen-ematea

Irailaren 28a da izena emateko azkeneko eguna; urriaren 6an hasiko da eta maiatzean amaitu

Plazako dantza tradizionalen ikastaroa eratu du udalak ikasturte honetarako, eta urriaren 6an izango da lehenengo eskola. Izena emateko aukera dago datorren martitzenera arte.

Eguaztenetan garatuko da ikastaroa, eta maiatzera arte iraungo du. Arratsaldeko 18:30ean hasi eta ordu eta erdiko iraupena izango dute klaseek. Olazar izango da dantza ikastarorako gunea. Patxi Montero irakasleak eskainiko ditu azalpen eta irizpideak eguazteneko klaseetan.

Ikastaroa martxan ipini ahal izateko 18 ikasle elkartu beharko

dira, gutxienez, antolatzaileek argitu dutenez. Kopurua dela eta lehentasunak ezarri behar izatekotan, Zaldibarren erroldatuta egotea eta izen-emate data hartuko dituzte aintzat. Zaldibartarrek 90 euro ordaindu beharko dute parte hartzeko, eta kanpokoek 100 euro. Izena ematerakoan eman beharko dute dirua. ■ M.O.

18:30ean hasiko dira eta ordu eta erdiko iraupena izango dute dantza eskolek

GOIENKALEKO JAIAK 2010
Irailak 23tik 26ra
DURANGO

OSTEGUNA 23
20:00 AURRESKUA
19:00 - 21:00 TXARANGA-POTEOA

OSTIRALA 24
12:00 LORE ESKAINTZA
14:00 JUBILATUEN OMENALDI BAZKARIA
17:30 BERBENA: TXITXARRILLO
19:30 TXARANGA-POTEOA
22:00 - 02:00 ROCK KONZERTUAK: ZEBEL / TRES41 / XARMA

LARUNBATA 25
11:30 EUSKAL DANTZAK
12:00 DURANGOKO MUSIKA BANDA
12:30 DURANGO ILARDUYA RUGBY TALDEAREN AURKEZPENA
14:00 SARDINADA
17:00 HAUR JOLASAK
17:00 MUS TXAPELKETA (MAITEN)
19:00 ITEL-TOKA TXAPELKETA (RUGBY)
18:30 - 21:00 TXARANGA-POTEOA
21:30 HUMPHREY CAO
23:30 DISKOTEKA MUGIKORRA

IGANDEA 26
12:00 - 14:00 TXARANGA
17:00 GORRITI ETA BERE ANIMALIAK
18:30 TXOKOLATADA

Establezimendu Laguntzaileak:
Arkarazo, Alpino, Anboto, Arkupe, Bikandi, Gure Kabiya, Gure Toki, Leku-Berri, Lurbi, Maite, Pol-Pol, Rugby Taldea, Txantonosa, Ttipi-Ttapa, Uda-Berri, Urdin, Zahartzu-Karreto

Babesleak:
EUSKAL DENDAK
Bizkaidendak
DURANGO Udalak - Ayuntamiento
EUSKAL GOBIERNO VASCO

tdendak
Asoc. Comerciantes Durango-Iurretako Dendarien Elkarteak



Durungaldean labor

200 marihuana landare zeuzkan gizon bat atxilotu dute Abadiñon

Astelehenean atxilotu zuten 51 urteko gizonezkoa, osasun publikoaren kontrako delitua egotzita. Durangoko Ertzain Etxeko agenteek atxilotu zuten Abadiño-ko bizilaguna, bere baserrian marihuana zuela argudiatuta: 200 landare ei zituen. Ertzaintzak baserri erdi-abandonatu batean marihuana landareak zeudela jakitean ikerketa martxan ipini zuten. Landareak, seguririk, salmentarako zirela uste dute.

Pila edukiontziak ipini ditu Abadiño-ko Udalak hamar gunetan

Pila edukiontziak udaleko lokaletan daude, eta baita Zelaieta, Traña-Matienan eta Muntzarazko hainbat merkataritza gunetan ere. Zelaietan, zahar etxean eta mediatekan ipini dituzte; Muntzarazkoen, Arriaundi okindegian eta Erosle merkataritza zentroan; Traña-Matienan, udal bulegoan, zahar-etxean, Errota kultur etxean, eta, Petite eta Traña liburu-dendetan. Udala arduratuko da edukiontzietan gordetako pilak jaso eta dagokien tokira eramateaz, Durungaldeko Amankomunazgoagaz elkarlanean.



Esperientzia Institutua hastear

Durungaldeko 55 urtetik gorako lagunek hainbat arlotan hezi eta esperientziak konpartitzeko Esperientzia Institutuan izena emateko epea zabalik dago urriaren 8ra arte, 08:00etatik 15:00etara, Behargintzak Durangon duen egoitzan.

MALLABIA

Batzar Nagusien eskea Aldundiari, Trabakuko pasabidea eraikitzeko

PSE-EE, EB, PP eta Talde Mistoak eskaera egiteari baietza eman diote. EAJ abstenitu egin da



Trabakun herritarrek mobilizazioak egin dituzte. Argazki Press

'Mallabia iturriz iturri' mendi ibilaldia Orraitiorekin

Mallabiko Orraitio euskara elkar-teak Mallabia iturriz iturri mendi ibilaldia irailaren 25erako antolatu du. Parte-hartzaileak 09:00etan Petritetik irtengo dute. Bakoitzak bere hamarretakoa eroan behar du.

Ibilaldiagaz batera bazkaria prestatuko dute Zumarra elkar-tean, Goita auzoan. Nagusiek hamabi euro ordaindu beharko dituzte, eta hamabi urtetik beha-

koek zortzi euroren truke bazkalduko dute.

Ibilbidea Mallabarrengon jarriko dute martxan. Aretio, San Trokaz, Arietzu, Zengotita Errota, Betzuen, Zengotita, San Martin, Askabarri, Trabaku eta Goita auzoetatik igaroko dira.

Ibilaldiaren arduradunek azaldu dutenez, Mallabiko txokoak ezagutzeko aukera ezin hobea da proposatutako ibilbidea egitea. ■ J.G.

Ibilbideko parte-hartzaileek 09:00etan irtengo dute, Petritetik, antolatzaileek jakinarazi dutenez

Trabakuko N-633 errepideko pasabidearen arazoari erantzuteko eta konponbidea berehala emateko eskatu diote Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari. Azpiegitura Batzordean Aralarren proposamenari baiezkota eman diote PSE-EE, EB, PP eta Talde Mistoak (Ezker Abertzalea, EA, Alternatiba eta Aralar). Botazioan EAJ abstenitu egin da. Iosu Murgia batzarkideak azaldu duenez, "urteetan gabiltza arazo honi buruz berba egiten, eta inguru horretan obrak egiten dabilenez oraintxe eman behar zaio irtenbidea pasabidearen arazoari". Eskaera horretan konponbidea zein izan beharko litzatekeen ez dela zehazten azaldu du Murgia. "Auzokideekin eta Udalagaz adostu beharko litzateke gaia".

Bertako auzokideek eta Mallabiko Udalak hainbat bider egin dute pasabidea eraikitzeko eskaera

Bertako auzokideek eta Udalak hainbat bider egin dute pasabidea eraikitzeko eskaera Aldundian, Aitor Loiola alkateak gogoratu duenez: "Aurrerapausoa da, baina ez dute esan arazoa noiz konponduko duten". Oinezkoek lau erre zeharkatu behar dituzte bidea gurutzatzeko. ■ J.G.

GARAI

Nagusiak, Aste Kulturalako ekintzetan murgilduta

San Migel nagusien elkarteak aurten ere Aste Kulturala prestatu du sasoi honetarako, eta dagoneko hainbat ekintza egin dituzte asteon. Martitzenetik eguenera, briska, tute eta mus txapelketetan jokatu dute, eta gaur, berriz, tortilla txapelketa egingo dute arratsaldeko 17:30etik aurrera.

San Migel egunean meza santuan eta ondorengo bazkarian elkartuko dira jubilatuek

Egun handia irailaren 29a izango da; euren elkarteari izena ematen dion San Migel eguna, hain zuzen ere. Eguerdiko 12:00etan meza santuan elkartu eta bazkarian jarraituko dute jaia jubilatuek. 28 euroan menu bete-betea dastatuko dute Herriko Tabernan.

Bazkalostean, bazkide nagusienak omenduko dituzte, eta egunotako torneo guztietako sariak banatzeko tartea ere hartuko dute. ■ M.O.

OTXANDIO

Euskara Eskolan izena emateko aukera irailaren 27a arte

Aurten ere Euskara Eskola antolatuko du Otxandioko Udalak, eta bertan parte hartu ahal izateko izena emateko epea irailaren 27an amaituko da. Udaltxean eman daiteke izena, eta e-mail bat ere ipini dute aukeran: euskarabatxordea.otxandio@bizkaia.org.

Klaseak Andresa Landan, horretara atondutako gelan emango dituzte. Iaz 18 lagunek parte hartu zuten Euskara Eskolan. Klase mota bi egongo dira aukeran: Andresa Landan astean hiru egunetan emango direnak, eta autoikaskuntza erakoak, astean ordubeteko tutoretzagaz.

Udalak diru-laguntzak emango ditu, hiru baldintzagaz: langabetua izatea eta langabekia prestaziorik ez kobratzea, klaseetara %80ko asistentzia izatea eta Otxandion erroldatua egotea, gutxienez urte bian. ■ J.D.

Diru-laguntzak emango ditu udalak Euskara Eskolarako, baldintza batzuk beteta

BERRIZ

Emakumeentzako jabeakuntza saioen berri

Gaur arratsaldean egingo dute aurkezpena

Gaur hasiko dira emakumeentzako jabeakuntza saioak, Kultur Etxean burutuko den aurkezpen batez. Arratsaldeko 16:00etan izango da ekitaldi hori, eta datozen hilabeteetan garatuko diren ikastaroen nondik norakoak azalduko dituzte bertan.

Bi eremu landuko dituzte aurten: osasuna, alde batetik, eta

gizartratzea eta emakumeenganako indarkeria, bestetik. Lehenengo Iurre Zabala fisioterapeuta berriztarrak emango du; astelehenetan burutuko da eta

Arratsaldeko 16:00etan izango da jabeakuntza ikastaroen aurkezpena

zoru pelbikoa indartzea izango dute helburu. Bigarrena barikuetan egingo dute Miriam Herbon soziologo eta feministaren eskutik, gaiak aztertzeke zinema eta antzerkia erabilita.

Konpostajea

Bestalde, hilaren 28an eta 29an konpostaje ikastaroa emango dute, *Berriz maite dugulako* ekimenak eta udalak eratuta. Konpostajea etxeko eta ortuko hondakinak tratatzeko sistema naturala da. Goiz zein arratsaldez, doan da ikastaroa. Interesatuak udaletxera jo edo berrizmaite dugulako@gmail.com helbidera idatzi behar dute. ■ M.O.

goizeko 08:00etatik gabeko 21:00etara zabalik

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

{ odontologia orokorra eta espezialitateak }

murueta torre bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

MOMOTXO TABERNA

Plateruen plaza, 12
Tel.: 94 681 10 06 DURANGO

BERBAZ >

“Emakumeak gehiago ohartzen dira hirigintza aldetik dauden trabez”

Hirigintza eta generoa batu dituzten tailerrak antolatzeko taldean egon da Saioa Zuazubiskar abadiñarra



Saioa Zuazubiskar •

- Abadiñarra
- Arkitektura ikasketak amaitzen dabil

Herria zelan hobetu daitekeen pentsatzeko tailerrak egin zituzten Abadiñon, joan ziren maiatzean eta ekainean. Hirigintzari buruz berbetan ibili ziren, generoaren ikuspegia kontutan hartuta. Aitziber Zuazubiskarrek tailerren berri eman digu; proiektu horretan dabil lanean karrera amaierako behar moduan.

Tailer parte-hartzailea izan zen uda aurrekoa.

Azken batean hirigintza partaidetzan oinarritu beharko litzatekeen gaia da. Herritarrek euren artean berba asko egin dezakete, baina hirigile garen heinean, jakin egin behar dugu herritarrek faltan botatzen dutena zer den, zer ikusten duten ondo edo txarto. Aldaketak egiteko ez da itxaron behar dena guztiz txarto egon arte.

Partaidetza horretan, zergatik jo duzue zehazki emakumeengana? Hiriak sortzerakoan hirigile direnak gizonezkoak dira. Espazio publikoak, eraikinak... gizonen ikuspuntutik eraikitzen dira. Tailerren helburua ahalik eta jende gehien batzea izan da, eta

emakumeen ikuspuntua ere kontutan hartzea. Hasieran Hiria kolektiboa talde mistoekin hasi zen lanean –kolektibo horrek dinamizatu du tailerra–, baina konturatu ziren beldurraren gaia eta segurtasun ezaren gaia irtetzean andre askok ez zuela benetan pentsatzen zutena esaten. Ikusi zuten emakumeak bakarrik egonda gauza gehiago irtetzen direla. Abadiñora ez da gizonezko korik etorri, beraz, ez da talde mistorik egin.

Ez al da beldurra emakumeagaz lotzen?

Tailerria ez da beldurretan zentratzen. Baliteke jendeak “beldurraren hiria”, “hiri debekatuaren mapa”... eta horrelakoak esanda beldur

sentsazio horregaz lotzea. Sistema patriarkalagatik hartu dituen rolagatik; nagusiak zaintzen, umeak zaintzen, erosketak egiten... aurrera eta atzera dabil emakumea, eta kaleko arriskuak gehiago pertzibitzen ditu.

Zer egin duzue tailerrean?

Lehenengo hirigintzaren eboluzioari buruzko azalpenak eman ditugu, herriak beharren arabera zelan antolatu diren ikusteko. Gero lau kale aukeratzeko eskatu dugu; bi onak eta bi txarrak. Onak edo txarrak zergatik diren hausnartu dugu: segurtasunagatik, mugikortasunagatik, eraikinak fisikoki dauden moduagatik... Gero argazki makinak banatu ditugu taldeka, antzeko ezaugarriak dauzkaten pertsonak batuta. Argazkiekin murala egin dugu, dena hausnartzeko. Garrantzitsua da denetarik jendeak parte hartzea; nik ez badaukat gurrildun aulkia, edo amama zaintzeko, edo ume bat...

“Orain arte hirigileak gizonak izan dira, eta hiriak euren ikuspuntutik daude eraikita”

“Tailerretan ekintza txikiekin konpontzeko moduko gauzak irten dira”

beharbada ez naiz konturatu herrian dauden trabez.

Zer ideia irten dira Abadiñon?

Gauza koherenteak dira eta ekintza txikiekin konpondu daitezke gehienak. Irisgarritasun mailan, adibidez, kultur etxera, medikura eta udal etxera sartzeko eskailerak daude. Zelaietan, txaleten inguruan argitasun falta dago... Aparkamentu faltari buruz ere egin da berba, eta hor kontzientziazio lana egin dugu. Kotxea gure etxeko atera heldu behar da beti? Abadiño barruan mugitzeko kotxea ez da beharrezkoa.

Tailerren ondoren, zein da hurrengo pausoa?

Seguruenik, erakusketa jarriko dugu tailerretakoa herrira zabaltzeko eta irten diren ideiak orokorrak diren jakiteko. Gero ondorioak eta proposamen batzuk aurkeztuko ditugu udalean. Udalak epe luzera gauzak konpontzen joateko konpromisoa hartu du. ■ A.U.



BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN

LAUDIO ABADIÑO

**KALITATEA ETA PREZIO EGOKIA
EZ DIRA BETI ELKARREN ETSAI**

AUKERATU EZAZU ORDAINTZEKO MODUA

ETA GUSTUKOEN DUZUN BEHERAPENA

www.bautistamuebles.com

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3 irteera) Urbitarte poligonoa 4 partzela, 2 pabillioia ABADIÑO (Eroski ondoan)

BEZEROAREN ARRETARAKO TELEFONOA: 94 672 77 00

KULTURA[>]

MUSIKA > ELKARRIZKETA

'Amaraunak' disko berria aurkeztera dator Xarma

Taldearen lehenengo entseguak hartu zituen Berrizko Gaztetxearen kanpoaldean batu gara **Xarma** talde erdi diren Froufe eta Christian gazte berriztarrekin. Aurretik Keike taldean jardundako Itsaso eta Jon Kirru dira, gitarragaz eta kantuan, laukotea biribiltzen duten lagun biak. Durangoko Goienkaleko jaietan joko dute gaur: *Amaraunak* izeneko lehenengo diskoko kantak aurkeztuko dituzte kontzertuan. Erritmo bizkorrak eta berba zorrotzak zein leunagoak eskainiko dituzte gaurko zuzeneko emanaldian.



Disko berria uda honetatik daukazue kalean. Zelan joan zen grabazioa?
Iazko abuztuan eta irailean egin genuen Karlos Osinagagaz grabazioa, eta urtebetez jardun dugu ondoren nahasketak egiten. Ekainean edo uztailean, urtebetera kaleratu dugu *Amaraunak* berria. Oso pozik gaude diskoak daukan soinuagaz.

Zelan batu zineten taldera?

Keike taldean zebiltzan Itsaso eta Jon, eta hiru kontzertutan batera jotzeko ordezkapen bat egiteko sartu zen Froufe lehenengo taldera. Keike uztear zeuden Itsaso eta Jon orain hiru urte, eta proiektu berri bat abiatzekotan. Elkartzen hasi ginen hirurok. Laster batu zen Christian baxu-jotzailea.

Taldekiddeen erdia Berrizen eta beste erdia Beizaman... zelan antolatzen zarete?

Apur bat gaitza izaten da lanetik atera ondoren entseguetarako batzeko berrogei kilometro egin behar izatea, baina gustuko dugu eta horrela egiten dugu: Beizaman batzen gara. Entsegu egunetan jo, afaldu eta elkarregaz berba egiten egoten gara. Entseguak ez dira jo eta etxera izaten: jo ondoren familia-afaria egiteko ohitura hartu dugu!

Keike taldea uztear zeuden Itsaso eta Jon, eta Froufe eta Christian batu zitzaizkien proiektu berrira

“Garen guztia ematen dugu, kirola egitean baino izerdi gehiago botatzen dugu kontzertuetan”

Belaunaldi biko musikariek osatzen duzue taldea. Musika egiterakoan igarri egiten da adin diferentzia hori?

Taldearen erdia hogeita hamar urteren bueltakoa eta beste erdia hogeikoa gara, bai, baina, musikari dagokionez, adin alde hori ez da igartzen: antzeko gustuak ditugu.

Noiz eta zelan konposatutakoak dira disko berriko kantak?

Kanten hasierako oinarria Itsasok eta Jonen sortzen dute, eta oinarri horretatik denon artean joaten gara gero kantei forma ematen.

Zelako kantak dira diskokoak?

Askotarikoak dira kantak; badaude nahiko lasaiak, eta baita gogorragoak ere, beste batzuek *stonner* kutsua dute... Definitzeko gaitza den musika kalifikatzeko orain erabiltzen diren berbeekin, gurea “rock alternatiboa” dela esango dugu... Egitura osoak barik, hainbat musika estilotako ukituak sartzen ditugu kantetan.

Eta kantetako berbak zelakoak dira?

Letretan, esperientzia pertsonaletan oinarritutakoak zein kritika soziala egiten dutenak daude. Gero, sekula ez dira falta maitasunari buruzko letrak ere. Itsasok edo Jonen idaz-

ten dituzte, normalean, letrak. Kantatu behar duenak kantetan kontatzen dena sentitzeko, modurik onena da letrak berak idaztea.

Hiru urtedaramazue taldean. Diskoa kaleratu arte denbora luzea igaro da...

Taldera batu ginenean, oraindik baxu-jotzailek ez geneukanean, bost kantako maketa grabatu genuen: zortzi entsegu egin ondoren grabatu genuen maketatxo hura. Taldearen izena eta kontakturako telefono zenbakia ipini genizkion diskoari, eta, batez ere, areto eta tabernetan banatzeko erabili genituen kopiak. Maketako bost kanta horiek ere sartu ditugu disko honetan, gehiago landu eta gero.

Hiru urteotan eskaini ahal izan dituzuen kontzertuekin gustura zaudete ala gehiago jotzea gura zenukete?

Beti gura dugu gehiago... Orain, esaterako, hiru kontzertu dauzkagu disko aurkezpenerako lotuta: Durangoko Goienkaleko jaietan gaur, eta Deustuko eta Ondarroko gaztetxeetan joko dugu datozen asteetan. Dena dela, azkenaldian asko murriztu da kontzertuak eskaintzeko aukera; gu umeak ginenean, astebururo zeuden kontzertuak Berrizko Gaztetxean, adibidez. Jendeak ohitura handia zeukan kontzertuetara joateko. Orain askoz jende gutxiago mugitzen du musikak.

Disko kaleratu eta gero, bazabiltzate kanta berriak sortzen?

Beti gabiltza erritmo eta melodia berriak prestatzen. Kanta berri bat badaukagu dagoneko prest: baliteke gaurko kontzertuan jotzea.

Zelako sentsazioak edukitzen dituzue Xarmaren kontzertuetan?

Dena ematen dugu: kirola egiterakoan baino izerdi gehiago botatzen dugu kontzertuetan. Entseguetan ere beste horrenbeste izerdi egiten dugu askotan; saltoka eta lurtean botata amaitzen ditugu entseguak...

Entsegu batek eta kontzertu batek, baina, zer desberdintasun daukate?

Entzuleak badaude, jendea. Jenderik ez bada... ez dago alderik...! (barreka). Entseguak oso motibatuta egiten ditugu beti, baina badaugu alderik: kontzertuek ukitu extra bat daukate beti.

Zelako aretoak dituzue gustuko?

Soinu aldetik baliabide gehiago izaten direlako dira bereziak kontzertu handiagoak, baina, egia esan, areto txikiak gozatu izan ditugu orain arte gehien: Hanburgon, eszenatokirik eta leihorik bako lurpeko areto batean eta hamabost lagun aurrean jo genuen... eta itzela izan zen!

Alemaniko kontzertuak gogoratzen dituzue bereziki, orduan?

Hanburgon eta Berlinen jo genuen Aste Santuan, eta esperientzia ikaragarria izan zen, benetan. Lekua bera da lehenengo eta behin halako kontzertu batean berezia, baina giroa ere apartekoa izaten da askotan; lehen etxe okupatuak zirenetan eskaini genituen Alemaniako hiru kontzertu horiek.

Zer jomuga daukazue Xarmakook orain, lehenengo disko kaleratu eta gero?

Gure musika ezagutzera ematea, eta kontzertuak jo eta jo aritzea. Musikatik bizitzea oso gaitza dela badakigu, eta orain arte legez musikagaz gozatzea da gure asmoa. ■ I.E.

TAILERRAK > AURKEZPENA

Gazteentzako komiki digital eta ikus-entzunezko tailerrak

lurreta eta Durangoko liburutegietan antolatu dituzte, laugarrenez, gazteentzako saioak



Durangar zein iurretar gazteak udal liburutegietara erakartzeko helburuagaz, 2007an martxan ipini zuten Ikima ekimenaren jarraipena da –lurretako alkatearen berbetan, “pausu bat gehiago”– Making izenagaz aurten aurkeztu duten proiektua.

Tailer bi dira, 14 eta 25 urte artekoak zuzendurikoak: biak ala biak teknologia berriak eta gazteen interesak uztartuz landuko dituzten gaiei buruzkoak: komikigintza digitala eta *book-trailer* izenekoak landuko dituzte.

Euren gustuko ekimen “dinamiko eta modernoak” eskainiko dituzte, gazteak herri bietako liburutegietara erakartzeko; urriaren eta azaroaren burutuko dituzte tailerrak.

Durangoko Aitziber Irigoras eta lurretako Iñaki Totorikaguena alkateak eta azken hiru urteetan ere Ikima tailerrak sustatu dituen Atarte kultur elkarteko Idurre Arrazola kudeatzaileak egin dute “irudi eta formatu berriagaz” datorren Making proiektuaren aurkezpenerako prentsaurrekoa.

Gazteen hizkeran

Blog bat kudeatuko dute proiektuan parte hartzen duten gazteek (www.makingsarea.blogspot.com helbidean), eta interneteko sare sozialak ere baliatuko dituzte. Gazteak liburutegietara erakartzeko, “gazteen lengoaia” eta teknologia berriak baliatuko dituzte aurten, antolatzaileek diotenez.

Urriaren 19an, 18:00etan, lurretako Ibarretxe kultur etxean egingo dute gazteei zuzenduriko aurkezpena. Urriaren 22an eta 29an, komiki digitalak landuko dituzte Durangon, eta azaroan egingo dute *book-trailer* tailerra lurretan: liburu baten ikus-entzunezko sinopsia grabatzeko.

Aurreko edizioetan ere komikigintza irakatsi duen Anartz Aranguena komikigileak eta Lara Izagirre Zornotzako zinegileak gidatuko dituzte tailerrak. ■ I.E.

Urriaren 19an, lurretako liburutegian egingo dute ekimenaren aurkezpena

ANTZERKIA > TAILERRA

Gorputz-espresioa eta jolasak, erbestertuen errealitatea ezagutarazteko

Durangon eta Bizkaiko beste bost herritan antolatu ditu antzerki tailerrak Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordeak

Durangoko Udalak eta CEAR-Euskadi errefuxiatuaren laguntzarako batzordeak sustatuta, “herritarak asilo-eskubideaz eta errefuxiatuen arazoez sentsibilizatzeko helburuz” ipini dute antzerki tailer soziala martxan.

Urriaren 18, 21, 25 eta 28an eta azaroaren 4, 8, 11 eta 15ean, San Agustin kultur gunean egingo dituzte 19:30etik 21:30era bitartean saioak, eta taldeak osatu arte izena eman ahal izango dute interesadunentzat.

San Agustinen dira antzerki tailer saioak, urriaren eta azaroan

Errefuxiatuen Laguntzarako Euskadiko Batzordearen interneteko ceareuskadi@cear.es helbidean zein 94-4248844 telefonoan eman daiteke izena.

“Jazarpen politikoa, globalizazioaren eragina, ingurugiroaren degradazioa, generoagatiko jazarpena edo erresistentzia mugimenduen kriminalizazioa” jasaten dituztelako euren aberria utzi eta beste herrialde batzuetan babesa hartu beharra duten pertsonen errealitatea hurretik ezagutzeko aukera eskaintzea da tailerraren izateko arrazoia: gurean bizi diren “erbestertutako pertsonen errealitatea jokoan eta gorputz-espresioaren bidez” ezagutaraztea, antolatzaileen berbetan.

Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu eta Bilbo, Getxo, Barakaldo, Gernika, Basauri eta Durangoko udalek babesten dute antzerki tailer sozial hau. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA

Fernan Ruiz,
Berbaroko kidea



Danbor hotsak

Herrien arteko muga-gatazka saihesteko planean abiatu ginen neguko izan zitekeen udako goiz umelean. Agintariak buru, aurrean, gatazka gehienetan ohikoa ez den arren. Uniformetat forru polarra eta makila eskuetan, oraindik zenbaiten aurpegietan asaltoaren arrastoa antzeman zitekeen, eta zer esanik ez herriko hormetan. Antzinako gatazkatik egungora jauzi egin gura barik ere, horrela gertatu zait; subkontzientea.

Danbor hotsak atera nau neure burutazioetatik, eta aldats gora egin dugu. Mirugaineko pagadian eguzki indargeak behe-lainoa urtu ezinean diharduen antzera nabil neure ere, gatazka kontuetatik ezin alden du, eta, era berean, ezin ikusi, lanbroak bazterrak ezkutatzan dituelako. Ez naiz kapaz nire barruan pizten diren bazter miresgarriak ikusteko.

Bat-batean, *Zatoz bidera!* kanpaina datorrik burura. Sasoi txarrean dator, kontxo!, edo onenean? Agian, kanpaina diseinatu duten horiek, zer datorren jakitun, iradokitzaile jokatuta eta bidera hurreratzeko deia egin dute.

Aldats behera goaz egun batzuk lehenago garbituriko bidezidorretik. Beste flash bat: *Neurrira eginiko trajea*. Hara! Hau jantzita akaso duinago azalduko lirateke, eta *Bai, nahi dut bidera* etorri daitezten, irrikan nago, hausnartu dut. Tripa-zorriak eragindako aluzinazioak ote?

Oraingoan, danbor hotsak hamarretakoa egiteko ordua laster dela adierazi du; eta ogitartekoak esnatu nauenean hasi naiz hariak lotzen. “Itxaropena ia galduta neukan eta, beraz, ilusio handia daukat; banekien lehenago edo geroago hartuko zuela erabakia; eskema guztiak apurtu dizkit, neuk ere erabakia hartu beharko dut; ez nuen horrelakorik espero, nire alabak beti egin du gura izan duena”.

Hortik aurrera, lanbroa desagertuz joan da, eta muga-gatazka saihesteko planari ekin diogu, agintariak buru, aurrean, gatazka gehienetan ohikoa ez den arren.

FILMEAK > EMANALDIAK

Irailaren 28, 29 eta 30ean Hegoamerikako herri indigenetako zinema

Zinema eta kooperazioa uztarturik, Mugarik Gabe GKEak antolatu du aurten ere film emanaldiak dakartzan ekimena

Hegoamerikako herri indigenetako bideo eta zinema jaialdietatik Mugarik Gabe Gobernu Kanpoko Erakundeak urtero aukeratutako filmak emango dituzte irailaren 28an, 29an eta 30ean, 20:00etan, Durangoko Plateruenean.

Guatemala, Bolivia eta Ekuadorreko hiru ekoizpen ikusgai

Guatemala, Bolivia eta Ekuadorreko hiru ekoizpen izango dira Plateruenean ikusgai; emakumezko indigenak dira horietako bitan protagonista. Guatemalako alderdien sistemari buruzko hausnarketa kritikoa jasotzen duen *Ti Tsaaj Xtalb'Al*

izeneko filma eskainiko dute, batetik: emakume indigena batek iraganari buruz egiten duen gogoeta da filmaren haria.

Boliviako konstituzioaren eraketan parte hartu zuten emakumezkoen bizipenak dira, bestetik, *La agenda de las mujeres en el proceso constituyente en Bolivia* eskainiko duten bigarren lanaren ardatz nagusia. Amaitzeko, Ekuadorreko nekazarien lurrerengatiko gatazka eta euren ekoizpen moduari eusteko borroka erakusten du *Sacha Runa Yachay* pelikulak. ■ I.E.

Hiru filmetatik bitan emakumezko indigenak dira protagonista

SAN MIGEL *jaiak* 2010



anboto

IURRETA, IRAILAREN 28 TIK - URRIAREN 3RA



San Migel
jaiak
irailak 29

www.iurreta.net

ondo pasa jaietan!

Iurreta Elizateko Udala

Iurretako JAI EGITARAUA

IRAILAK 24, BARIKUA

- 19:00etan *Ser o no ser (visible)* antzezlanaren Ibarretxe kultur etxean.
- 21:30etan Jota nafarrak.
- 22:00etan Durangoko Klasikoen Rallya Aldaparapen.
- 22:30etan Herri kirolak Olaburu frontoian.
- 23:00etan Durangoko Klasikoen Rallya Bixente Kapanagatik.

IRAILAK 25, ZAPATUA

- 08:00etan Mendi martxa plazatik irtenda.
- 10:00etan Euskadiko IV. One-Wall pilota txapelketa.
- 12:00etan Kotxe zaharren erakusketa Bixente Kapanagan.
- 12:30ean Globoflexia eta kometa tailerrak Amilburun.
- 18:30ean Asto-probak.
- 19:00etan Umeentzako Parrandan erromeria Askondon.
- 19:30ean Tortilla txapelketa.
- 21:00etan Batukada plazatik Montoira.
- 22:30ean Garibaldi Mariatxiak Askondon.
- 23:00etan Rock kontzertua (Little John and the Howling Diabrus, Zea Mays eta Esne Beltza taldeekin)

IRAILAK 26, DOMEKA (Umeen eguna)

- 09:00etan XXIII. Ahari lurreta zikloturisten martxa (irteera eta helmuga San Migel plazan).
- 10:30ean Motozaleen elkartzea. Aurkezpena.
- 11:30ean Motozaleen ibilbidearen irteera (ostean pintxo-jana).
- 12:30ean Durangoko Musika Banda Dantzarin.
- 16:00etan Benito Ross motorgidariaren erakustaldia Aldaparapen.

- 16:30ean Umeen parkea, puzgariak eta tailerrak (euria egin ezkerro Maiztegiko frontoian).
- 18:00etan Pin-pon txapelketa.
- 18:30ean Asto probak.
- 19:30ean *Jakin eta jolas antzoki-ko istorioak* pailazoak Askondon.

IRAILAK 28, MARTITZENA (San Migel bezpera)

- 12:00etan Montoitik txapligoak, eta ondoren dultzaineroek giroturiko kalejira.
- 12:15etan Umeendako ikuskizuna Askondon.
- 14:00etan Herriko nagusien bazkaria, jarraian Iñaki Uribesalgo soinu-jolearen emanaldia.
- 14:30ean Gazte bazkaria.
- 18:00etan Doniel-atxa altxatzea. Dantzarien azken saioa.
- 22:00etan Erromeria Luhartz taldeagaz.

IRAILAK 29, EGUAZTENA (San Migel eguna)

- 10:30ean Dantzari eta agintarien kalejira Montoitik plazara.
- 11:00etan Meza nagusia. Ondoren Dantzari Dantza.
- 12:30ean Bertsolariak: Gorka Lazkano, Eneko Abasolo "Abarkas" eta Igor Elortza.
- 16:30ean Herri-kirolak.
- 18:30ean Dantzari Dantza eta Soka Dantza.
- 20:30ean Erromeria AIKO dantza taldeagaz.

IRAILAK 30, EGUENA

- 16:45ean Umeentzako gynkana plazan.
- 18:30ean Nesken talde ziklistaren aurkezpena.
- 19:00etan Oliver magoa Ibarretxe kultur etxean.
- 19:00etan Hilan aldeko meza.
- 20:00etan Poker txapelketa.

URRIAK 1, BARIKUA (Migeltxu Kajoi eguna)

- 18:00etan Umeentzako Zirika Zirkusen *Ilargian* Askondon.
- 19:00etan San Migel jaietako VIII. Pilota Txapelketako finalak.
- 19:30ean Elektrotzarangak giro-turiko prozesioa Montoitik.
- 21:00etan Frontenis maratoi herrikoa.
- 23:00etan Erromeria Trikiziogaz.

URRIAK 2, ZAPATUA (Mozorro eguna: telesailak)

- 12:30ean Poteoa eta kalejira Montoitik plazara.
- 15:00etan Herri-bazkaria.
- 17:00etan Erromeria Osabigaz.
- 17:00etan XI. Bizikleta Festa.
- 20:30ean *Les diables de Sant's Correfoc*.
- 22:00etan Bertsolariak: Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Jon Maia eta Miren Amuriza. Gai jar-tzailea: Maite Berriozabal.
- 24:00etan Erromeria Laiotz taldeagaz.

URRIAK 3, DOMEKA (Errosario eguna)

- 10:00etan 'Pablo Berasaluze VIII.a' txapelketaren finalak.
- 10:00etatik 15:00etara XII. Nekazaritza eta Artisautza Azoka Andaparapen.
- 10:30ean Dantzari eta agintarien kalejira Montoitik plazara.
- 11:00etan Meza nagusia. Ondoren, Dantzari Dantza.
- 13:00etan Errioxar erako pataten txapelketa.
- 14:30ean Txapelketara aurkezutako lapikoen aurkezpena.
- 16:30ean Pilota partidak: Berasaluze VIII.a-Apraz Vs. Bengoetxea VI.a-Beloki
- 18:30ean Dantza saioa talde gonbidatuagaz. Gorulari Dantza, Dantzari Dantza, eta jaietako errifen zozketa.
- 20:30ean Herri-afaria Arantza eta Pantxok girotuta.
- 22:00etan Jaiaren amaiera, ohi-turazko bertsoak kantatuz. Gauerdia arteko erromeria.





San Migel egunez eta urriaren 2an, bertsolariak

Sanmigeletan bertsozaleek hitzordu bi edukitzen dituzte urtero-urtero, eta aurtien ere horrela izango da.

San Migel egunean plazan izango da bertso saioa, eta eskualdeko hiru bertsolariak jardungo dute bertsoan, 12:30ean hasita. Hirukotea Gorka Lazkanok, Eneko Abasolo "Abarkas"-ek eta Igor Elortzak osotuko dute, librean kantatuz.

San Migel egunean eguerdian eskainiko dute bertso saioa, eta bigarren zapatuan, gaueko 22:00etan

Dena prest jaiari ondoetorria egiteko

Parte-hartzea erraztuko duen egitaraua eratu dute jaietarako

Tradizioei eusten ahalegin-
du arren, gauza berriak probatzeari beldurrik ez dioten jaiak dira Sanmigelak. Aurtengo egitaraua ere horren adibide argia da; ohiko Doniel-atxa edo dantzari-
ez gainera, izango da nobedaderik lurretako jaietan.

Hilaren 28an dantzari zein herritarrek altxatuko dute Doniel-atxa mitikoa, eta jaia guztiz lehertuko da hortik aurrera. Horren ondoren, dantzari-
ek azken entsegua

egingo dute, datozen egunetan izango dituzten saio guztietarako prestatu eta ohitzeko.

Jan-edanak beti du lekua egitarauan, eta bihar, esaterako, tortilla txapelketa egingo dute. Azken domekan ere, lehiaketan patatak errioxar erara prestatuko dituzte. Ezin ahaztu hilaren 28ko gazte bazkaria, ezta disfraz egunekoa ere.

Nobedadeak

Jokoa gustuko dutenek pokerra eskura izango dute hilaren 30ean.

Urriaren 2an, Sanseko deabruak Kataluniatik etorriko dira sua eta dantza lagun dituztela. Dena dela, nobedade nagusia Migeltxu Kajoi izango da, dotore irtetzeko eguna, urriaren 1ean.

Hilaren 28an, dantzari zein herritarrek Doniel-atxa altxatuta jaia lehertuko da lurretan hortik aurrera

Jaietako bigarren zapatuan, Mozorro Egunean, izango da bigarren bertso saioa, pilotalekuan. Entzule bereziak izango dituzte bertsolari-
ek, telesail-
etako pertsonaie-
z mozorrotuko direlako iurretarrak egun horretan. Beraz, bertsolariak ez dira pilotalekuko pertsona ezagun bakarrak izango. Sei bertsolari-
k jardungo dute bertsoan: Andoni Egañak, Unai Iturriagak, Amets Arzallusek, Maialen Lujanbiok, Jon Maiak eta Miren Amurizak. Sei bertsolari-
k Maite Berriozabal gai-jartzaile berriztarraren gaiak entzunda egin beharko dute bertsoan. Gaueko 10etan hasiko da saioa.

**AMAYA**
AUTOEN KONPONKETAK S.L.
Tel.: 94 681 21 23 • Faxa: 94 620 38 18 • email: oficina@amayaautoreparaciones.com • www.amayaautoreparaciones.com

UAI, 1 INDUSTRIAGUNEA (Orozketa errepidea)
48215 Iurreta / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango

OKINDEGIA
ALBERDI 
Mallabiena, 1 - Tel.: 94 681 03 62 - IURRETA

**"la Caixa"**

Ondo pasa San Migeletan!

Bixente Kapanaga, 5 • 48215 Iurreta • Tel: 94 622 00 10 • Faxa: 94 621 58 48

“Jai herrikoiak bultzatzen gabilta”

Iurretako jai batzordea buru-belarri dabil beharrean



Jaietan ondo pasatzeaz gainera, lan egiten duenik ere badago. Iurretako jai batzordea aspaldi dabil egitaraua prestatu eta ekitaldiak antolatzen. Herriko talde ugari bildu da jai parte-hartzaile eta herrikoiak prestatzeko asmoagaz. Gazte, pilotari, txirrindulari, bertsolari, aisialdi taldeko eta motorzale zein herri-kirol zaleek elkarrekin osatu dute aurtengo jaietarako eskaintza.

“Migueltxu Kajoi antolatu dugu. Erromeria aurretik elegante jantzita joango gara”

Jai egitaraua irailaren 17tik martxan duzue Iurretan.

Berez jai egun ofizialak gutxi direnez, irailaren 28tik urriaren 3ra, pilota partiduak aurretik hasten dira, finala jaietan jokatu arren. Aurreko asteburuan umeen eguna antolatzen dugu, eta parkea jartzeko aprobetxatzen dugu. Pirritx eta Porrotx jai betean ekartzea gura genuke, baina grabazioetan ibili ohi direnez, urtero iraileko bigarren asteburuan etortzen dira Iurretara.

Tradizio handiko jaiak dituzue. Gaitza da berrikuntzak egitea? Aurreko egitaraua begiratu eta gauza batzuk mantentzen ditugu. Jai batzordean gutxi gaude, eta ahalegintzen garen arren ez da erraza izaten. Ateak zabalik ditugu baten batek beste zeozer proposatu gura badu.

Berrikuntza moduan Migeltxu Kajoi antolatuko duzue.

Bariku arratsaldean zeozer gura genuen erromeria aurretik. Poteo bat egitea pentsatu genuen. Maritxu Kajoi zela konturatu ginen, eta erabaki genuen elegante jantzita prozesioa egitea tabernaz taberna fanfarria bategaz. Giroa sortzea da asmoa.

Zaldai mendi taldeak irteera antolatuko du. Euskadiko laugarren One Wall lehiaketa ere prestatuko dute

“Badabil jende gaztea jai batzordean. Jai batzordea luzerako izatea itxaroten dugu antolatzaileok”

Egitarauan beste nobedade batzuk ere badaude.

Zaldai mendi taldea birsortu da, eta irteera antolatuko du lehenengoz. Euskadiko laugarren One Wall txapelketa ere eratuko dugu.

Jai batzordea sasoi onean dago? Badabil jende gaztea jai batzordean sartzen, eta estimatzekoa da.

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK
IZARBE *Ondo pasatu San Migelak!*
 Lanparak, oparitzeko gauzak, sukaldeko eta komuneko altzariak
TIEN 21
 Bixente Kapanaga, 3 - 48215 Iurreta Tel.: 94 681 22 80 Faxa: 94 621 63 36 izarbek@izarbek.com

IK Iurreta kopistegia
INPRENTA DIGITALA
 Bidebarrieta, 1 behe (Korreos ondoan)
 48215 IURRETA
 Tel. 94 681 10 70
 planos@iurretakopi.com
 mac@iurretakopi.com

EBANISTERIA - AROZTEGIA
ELAI
 Arriandi industrialdea, z/g
 Tel./Faxa: 94 620 07 69
 48215 IURRETA

Parques y Jardines
 Abadiano, S.A.
LORAZAINTZA • KIROL ZELAIK • HIDROEREITEA • GOLF ZELAIK
 Gaztañatza auzunea - 48215 IURRETA (Bizkaia)
 Tel.: 94 681 37 93 / 94 681 26 33 / 94 621 55 80
 Faxe: 94 681 90 82
 parques@parquesjardines.euskalnet.net

Prestatzeaz gainera, disfrutatu ere egin gura dugu. Jai batzordea luze-rako izatea itxaroten dugu.

Jai herrikoi eta parte-hartzaileak gura dituzuela adierazi duzue. Herrikoendako jaiak prestatzea da asmoa. Kanpotik datozenak ere ondoetorriak dira, baina jaiak iurre-tarrentzako dira. Herriaren parte-hartze bako jairik ez dugu ulertzen, lurretan behintzat.

Ekitaldi gehienek arrakasta izaten dute?

Antolatzen diren ekitaldi guztietara joaten da jendea. Pozten gaitu behar egin ondoren jendea gustura dagoela eta parte hartzen duela konturatzeak.

Finantzaketan krisia nabaritu duzue?

Udalaren dirua eta txosna dira gure diru-iturriak. Eguraldiaren arabera, jaietan alde handiagoa dago. Eguraldi onagaz, plaza betetzen da dirua ateratzen da. Plazan antolatzeko ditugu ekitaldi gehienak.

Anderebidegaz elkarlanean ere ekitaldi bi antolatu dituzue.

Anderebidek *Ser o no ser...visible* antzezlan antolatu du, gaur 19:00etan Ibarretxe kultur etxean. Cristina Castillo aktoreak antzezlan honetan emakume lesbiana bati buruzko istorioa kontatzen du. Oliver magoa irailaren 30ean Ibarretxe kultur etxera gonbidatuko dute. Emakumeen gaiak landuko dituen monologoa eta magia uzartuko ditu.

Emakumeen txirindulari taldea ere aurkeztuko duzue.

Ciclos Iturriaga-Autos Elorrio txirindulari taldeak denboraldi berrian taldean izango dituen txirindulariak aurkeztuko ditu.

Anderebidek ere antolatu ditu hainbat ekitaldi jai batzordeagaz elkarlanean

Zaldai mendi taldea ekinean da berriro, indarberriturik

Biharko mendi irteeraz gainera, hilero ekimenak antolatzeke asmoa daukate

Orain urte dezentetik hona, ahanzturan egon den Zaldai mendi taldea biziberritu dute hainbat iurretaz gaztek. San Migel jaien barruan, 25 kilometroko mendi ibilbidea antolatu dute, eta aurrerantzean, hilero ekimen bat edo bi prestatzeko asmoa daukate.

Bihar, 08:00etan irtengo dute plazatik. Izen-ematea ibilbidea hasi aurretik egingo dute: Arrianditik aurrera, Santa Apolonia eta Orozketa pasatu eta Neverondo eta Atxurkulura igoko dira. Mugarrikolandara heldu aurretik, Artatzaganagerantz hartuko dute, eta Leunganetik lurretara bueltatuko dira. Plazara bueltatze-

an, luntxa egingo dute parte hartzaile guztiekin.

Jarraipena izango du Zaldai mendi taldea biziberritu dutenek urte osoan ekimenak prestatzeko asmoa daukate. Hilean behin edo pare bat bide-erez, ibilaldiak, eskalada tailerrak zein diapositiba emanaldiak antolatuko dituzte.

Bihar, 08:00etan, 25 kilometroko ibiladia abiatuko dute plazatik; bueltan luntxa egingo dute

Poker txapelketan gazteek parte hartzeko deia egin dute

lurretako Gaztetxeak jaietako egitarauan urtero parte hartzen du. Gazteei zuzendutako hainbat ekitaldi prestatuko dituzte. Tortilla txapelketan irailaren 25ean izango da. Izena ematen dutenek prestatutako tortillak 20:00etan aurkeztu beharko dira. Ping pong txapelketa irailaren 26an, 18:00etan, antolatuko dute. Txupinazoa eta gero, irailaren 28an, poteoa egingo dute jaietako painelu eta Gaztetxeke kami-

setagaz herrian, tabernarik taberna. Gazte-bazkaria eguerdiko 14:30ean izango da, jai giroagaz jarraitzeko.

Berrikuntza moduan, aurten Gaztetxeak poker txapelketa antolatuko du, irailaren 30ean, 20:00etan. "Gazteak biltzeko aukera erraza ikusi dugu", azaldu dute ekitaldiaren antolatzaileek. Pokerzale gazteek, beraz, jaietan kartajokoan duten trebezia erakusteko aukera izango dute.



Juan Ramon Azkonizaga
Ortuzar auzoa, 1 - IZURTZA Biltegia: 94 681 06 52

Banatzaila:

UNDARRI BIKE
Bizikleten salmenta eta konponketa.

Bidebarrieta, 5 - bajo
48215 IURRETA
undarribike@undarribike.com

94 681 78 08
www.undarribike.com

Motorren konponketa, Harilketa, Koadroen automatismoa, Argiteria publikoa, Pabiloiak eta Etxebizitzak

Elektrizitatea

GURE ETXEA, S.L.

Mallabiena auzoa, 56 behea
Tel.: 94 681 28 62 Faxa: 94 681 88 77

48215 lurreta (Bizkaia)

SERAPIO CALVO
eskaiolazko dekorazioak

- SABAI ERREGISTRAGARRIAK
- PLADUR SABAIK
- APALAK

Tallera
Bidebarrieta, 7 behea • Tel.: 94 681 15 12 • Faxa: 94 466 81 00
e-posta: serapiocalvo@euskalnet.net

IURRETA

LAGOI S.L.

ERAIKUNTZARAKO MATERIALA

Biltegia:
Arriandi auzoa z/g ¥ Iurreta
Tel.: 94 620 33 22
Faxa: 94 621 58 74

Erakusketa:
Montebideo etor. ¥ Durango
Tel.: 94 621 52 84
Faxa: 94 621 52 85
www.lagoi98.com

Eguneroko arropak armairuan utzita

Migeltxu Kajoi egunean dotore jantziko dira iurretarrak



Jaien bigarren asteburuan praka bakeroak eta eguneroko kamiseta etxean utziko dituzte iurretarrak. Barikuan elegante jantzeko eguna antolatu dute: Migeltxu Kajoi. Zapatuan, berriz, urteroko Mozorro Eguna edukiko dute, eta aurten "telesailak" izango dira gaia.

Urriko lehen barikuan Arrasaten Maritxu Kajoi izaten dela-eta, aurten jai horri keinu berezia egitea pentsatu dute lurretan. Egun horretan bertan dotore jantzita irtengo

dira kalera iurretarrak, Migeltxu Kajoi eguna ospatzera. Migeltxu hartuta, arratsaldean "prozesioa" egingo dute. 19:30ean ipini dute hitzordua Montoian, eta alkateagaz, abadeagaz eta monagilo baten

Iurretarrak telebistako izar bilakatuko dira urriaren 2an. Bezperan, Migeltxu hartuta dotore ibiliko dira prozesioan

laguntzagaz ibiliko da Migeltxu tabernarik taberna. lurreta osotik pasatuko da prozesioa plazaraino, Elektrotxaragaren laguntzagaz.

Elegante jantzita irten eta bihar ramonean, beste mozorro bat jantzeko eguna izango dute iurretarrak. Mozorro Egunean aurten jende ezagun asko ibiliko da lurretan. Telesailtako pertsonaiez jantzeko eguna izango da urriaren 2a, eta marrazki bizidun, telesail eta telenobletako protagonistek San Migeletako giroaz gozatuko dute.

Umeendako erromeria eta tailerrak jaietan

Gaztetxoei begirako hainbat ekimen prestatu dituzte San Migel jaietan. Bihar, 12:30ean, globoflexia eta kometa tailerrak izango dituzte Amilburun. Arratsaldean, berriz, 19:00etatik aurrera, Deabru Beltzak taldeak *Parrandan* izeneko zuzeneko eskainiko du, gaztetxoak dantzara gonbidatuz.

Domekan, 16:30etik aurrera, hainbat puzgarrigaz osatutako umeen parkea atonduko dute. Tailerrak ere egingo dituzte. Euria egiten badu, Maiztegiko frontoira tokialdatuko dute ekimena.

Hilaren 30erako, umeen artean arrakasta izan ohi duen ginkana antolatu dute, plazan. Gaztetxoek hainbat oztopo gain-

Zirika Zirkusek erritmoz, umorez eta zirku-malabarez osatutako antzerki lana eskainiko du

ditu beharko dituzte saria jaso gura badute. Amaitzeko, urriaren 1ean, Zirika Zirkus taldeak *Ilargian* ikuskizuna eskainiko du, 18:00etatik aurrera. Hiru pailazok osatutako ikuskizuna erritmo, umore eta zirku-malabarez beteta etorriko da. Bolintxek, beti bezain erromantiko, ilargiari lore sorta bat oparitu gura dio, eta lagunek lagunduko diote zeregin horretan.

ondo pasatu jaietan!

Eguneko menua
Enkargatutako afariak
Asteburuetakoko afariak

lurretako BATZOKIA

C/Bixente Kapanaga, 21 - Tel: 94 620 27 64

restaurante betixu jatetxea

Igor Solaguren Arduradun berriak, sukalde berria.

Iturburu, 9 • 48215 Iurreta (Bizkaia)
Telefonoa: 94 681 78 47

• Astelehenean ibiltu • Janariak jantokian: asteartetik - igandera • Afariak jantokian: ostegunetik - larunbatara •
• Gozatu gure razioak terrazan eguerdi eta gauetan (asteartetik - igandera) •

Launa plus
Ondua

Launa plus

Bodegas *Launa*
Arabai Errioxa

www.bodegaslauna.com
info@bodegaslauna.com
Tel.: 94 682 41 08

Repara Tu Vehículo

Otra mecánica es posible

Erreserbatu zure boxa lehenbaitlehen!

N-634 errep. Durango-Bilbao 82km. • UEI-3 polig. 5 zkia behea
48215 Iurreta • Tel./Fax: 94 681 79 14

KAFETEGIA

IBAI-ONDO

Bixente Kapanaga, 11
48215 IURRETA

94 620 21 57

Gaua musikaz gozatzea da biharko proposamena

Disko berria aurkeztu aurretioxan Zea Mays

Urriaren hasieran Japonen bira lotuta daukan Esne Beltza, urrian disko berria aurkeztuko duen Zea Mays, eta Durangaldeko musikariek osatzen duten Little John and the Howling Diabrus musika taldeak gonbidatu ditu jai batzordeak Sanmigel jaietako rock kontzertuen gaurako.


Urriko lehenengo hamabostaldian Japonera bidea hartuko duen eta abendura arte Euskal Herriko jaietan zuzeneko asko eskainiko dituen Esne Beltza talde-

ko bederatzi musikarien soul, reggae eta ska doinu beltzak izango dira jaien lehenengo zapatuan lurretan: San Migel plazaren dantzarako tradizioa frogatzeko, bestelako doinu dantzagarriak gehituko dizkiete aurretik

Durangaldeko musikariek osatzen duten Little John and the Howling Diabrus tartean

besteak beste, Etzakit, Fermin Muguruza edo Suta Gar lako taldeetan aritutako musikariek. Esne Beltzagaz gorputzak eta arimak dantzatuko dituzte bihar gauean San Migel plazan batuko direnek.

Urriaren 14an IRA izeneko disko berria aurkeztuko duten Zea Mays taldeko bilbotarrek ere joko dute, bihar, lurretako jaietako oholtzan. Interneten entzungai ipini ditu laukoteak disko berriko hiru kanta. Aurrerapena izan liteke Sanmigeletako hitzordua.



Kirolari ugari jardungo du herritarren aurrean

'Ahari Iurreta' martxak batuko ditu zikloturistak

Pilota partidu mordoa izango da ikusgai jaietan, nagusia profesionalen artekoa izanik: Berasaluze VIII.ak eta Apraizek Bengoetxea VI.a eta Belokiren aurka neurtuko dituzte indarrak, urriaren 3an, 16:30ean hasiko den jaialdian. Gainera, ume eta gazteek ere izango dute aukera Sanmigeletan; pilota eskolako 40 ikaslek dihardute jaietako torneoan, eta Pablo Berasaluzeren ome-

nezko txapelketako finalak jokatuko dira urriaren 3an. Herri-kiroletan asto-probak eta indar desafioa egingo dituzte, besteak beste. Azken hau gaur bertan izango da frontoian, 22:30ean, gazteak eta zaldiaren artean.

Bestalde, txirindulari elkarteak ere ekintza andana antolatu du; domeka honetan izango da lehengo: XXIII. Ahari Iurreta martxagaz.

Berasaluze VIII.a eta Apraiz, Bengoetxea VI.a eta Belokiren aurka neurtuko dira lehian, urriaren 3an, 16:30etik aurrera

Betikoak
flexografía

- ofizinarako zigiluak
- fotolitoak

Bixente kapanaga, 9 - 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 22 41

URIEN
liburudenda

opariak jolasak eskola eta bulego gaiak testu liburuak bus bonoak gozokiak prentsa aldizkariak fotokopiak fax zerbitzua telefono txartelak

BIXENTE KAPANAGA. 10 TEL.: 94 466 93 60 FAXA: 94 466 93 61 48200 IURRETA

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA
GASA
BEROGAILUA
ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6 - 48215 Iurreta - Tel.: 94 681 88 62 - mallabiena@mallabiena.com

TOLDOS
LECE^S/_L

Kataide industriagunea, 14.pabiloia (Musakola auzoa)
Tf.: 943 792 383
Telefaxa: 943 770 445
20500 ARRASATE

Mallabiena auzoa, 6
Telefaxa: 94 681 76 19
48215 IURRETA

Inork baino hobeto eguzkiari aurre egiten diogu

AUKERAZKO
IBILGAILUAREN
JATORRIA EZAGUTZEA
OSO GARRANTZITSUA
DA. GAURSAN
GUZTIA KONTATZEN
DIZUGU.

*Andoni
esana*

facebook

Andoni Baños,
Gausako Aukerazko Ibilgailuen salmenta arduraduna.



**RENAULT MÉGANE
SPORT TOURER**

1.5 dCi 105cv
(2009)

15.950€

**RENAULT
OCASIÓN**

ZUK DENA NAHI DUZULAKO.

PSP transferentzi gastuak barne 2010/10/31-arte edo izakinen amaierararte baliozko eskaintza.



GAURSA ARRIANDI 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA.

GRAN VÍA 65. TEL. 94 441 74 50. BILBAO. www.gausaautoak.com

BILBO BERRI JON ARROSPIDE 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTO. www.bilboberri.com.

ARTEA > SORKUNTZA BEKA

Durangoko Udalak eskaintzen duen Sorkuntza Beka jasotzeko hautatua izan zen iazko ekainean Miriam Peña durangarraren proiektua. Udalak emandako diru-laguntzagaz burutu du Peñak bere ideia, eta urtebeteko lanaren ondoren Durangoko Udal Liburutegiaren sarreran herritar guztientzat ikusgai dago emaitza. Leku bakoitzean astebe- tez, Durangoko Udal Liburutegian, igerilekuan eta Hizkuntza eskolan ipiniko du egileak artea herritarren eskura jartzeko helburua duen instalazio artistikoa.

“Errealitatea bat baina begiradak hainbat” direla erakusteko

Aurretik ere aurkeztu izan ditu Miriam Peñak hainbat proiektu Durangoko Udalaren Sorkuntza Bekara. Iazko edizioan artista gazteek aurkeztu zituzten proiektu- guztien artean Peñaren ideia aukeratu zuen udalaren epaimahaiak, urtebeteko epean gauzatu zezan.

Egileak berak azaldu digunez, azken aldiaren lantzen dabilen kontzeptuekin harremana dauka *Durango, beste begirada bat* lanak: gure egungo bizitzan oharkabean

igarotzen zaigun errealitatearen zatia, “ikusten ez duguna”, hori ere hor dagoela konturatu gaitezen proposatzen du irudietan oinarritutako instalazioak.

Durangoko teilatua, eraikinen goialdeak, dira instalazioak erakusten dituenak: “herriaren beste dimensio bat”, zelanbait esateko. Gauzak begiratzeko beste modu batzuk ere badaudela konturatu gaitezen du jomuga egileak, azaldu digunez.

Errealitate hartutako irudi batetik abiatuta, errealitate abstraitzera bideratzen ditu ikusleak: “errealitatea bat” izan arren, “begiradak hainbat” direla erakusten du Peña durangarraren lanak.

Kutxa bat, kasu honetan, Durangoko Liburutegiko teilatuan ipini duen kamera batera lotua dagoena da 2009ko Sorkuntza Bekagaz finantzatutako instalazioaren oinarria. Motore baten energiagaz ezker-eskuin mugitu daitekeen, eta teilatuko ikuspegia etenik barik grabatzen duen kamera da Durangoren beste ikuspegi bat hurreratzen diguna.

Behealdean, liburutegiko sarreraren dagoen kutxatik, ikusleak berak gidatu ditzake Durangoko alde zaharreko goialdeetako irudiak hartzen dituen kameraren mugimenduak. Horregaz jokatu gura izan du artistak: bakoitzak

Durango beste ikuspuntu batetik begiratzeko instalazioa

Udalaren iazko diru-laguntzagaz Miriam Peñak burutu duen lana ikusgai dugu Durangon



kontrolatzen du zer gura duen ikusi, eta zelan. Horrela, “konturatu barik, jendeak arteagaz hartu emana izatea” lortzen du, besteak beste, diseinu grafikoan ere badiharduen Miriam Peñak.

Ikusleak gidatzen du liburutegiko teilatuan dagoen kamera

Museoan barik, kalean eta jendearen eskura egon zitekeen artelana burutzea zen Peña durangarraren jomuga nagusia, eta lortu du liburutegiko erabiltzaileengan ikusmina sortzea. ■ I.E.

ANTZERKIA > EMANALDIA

Mutrikuko antzerki taldearen ‘Saturraran 1938-1944’, bihar

Irailaren 25ean, bihar, oholtzaratuko du Mutrikuko Goizeko Izarra antzerki taldeak Berrizko Kultur Etxean bere lana



Mutrikuko Goizeko Izarra antzerki taldea da bihar gaueko Berrizko kultur etxeko gonbidatua. Gipuzkoako kostaldeko herri hartako Francoren aldekoek Saturraranen eratu zuten emakumeen kartzelako istorioak oholtzaratzen dituzte Arantza Ugarteren zuzendaritzagaz jarduten duten antzerkizale mutrikuarrek *Saturraran 1938-1944* antzezlanean.

Arantza Ugarte da zuzendaria, eta bi antzezle nagusi daude

Frankistek 1936ko altxamenduaren ondoren kartzela bihurtu zuten Saturrango seminarioan bizitako emakumeen testigantzak eta bizipenak azaltzen dituzte antzezle bik bihar Berrizen ikusgai den antzezlanean. ■ I.E.

ARGAZKIGINTZA > ERAKUSKETAK

Argazki ikastaroa Muntzaratzen, Joseba Carcavilla auzotarragaz

Argazkigintzan lehenengo pausoak eman gura dituztenei zuzenduriko ikastaroa antolatuko du udalaren babesagaz, Muntzaratz auzotarrak. Urriaren 2tik abenduaren 18ra, zapatu goizetan, 10:00etatik 12:30era, egingo dituzte saioak. Auzo elkartearen lokalean batuko dira ikastaroko parte-hartzaileak.

Muntzaratzko zapatuetako tailerra gidatzen, argazkigintzan eskarmentu handia daukan eta aurtengo San Trokaz jaietako kartel lehiaketan saria jaso duen Joseba Carcavilla auzotarrak jardungo du. Izena auzoko okindegian eman daitekeela jakinarazi dute antolatzaileak. ■ I.E.

Airetik hartutako Elorrioko argazkiak eta urpeko irudiak

Martitzenetik irailaren 30era Elorrioko Iturri kultur etxean ikusgai dago *Elorriko airetik eta Kantauri itsaspetik* erakusketa. Argazkiak dira erakusketan bildutako lanak, bi ikuspuntutatik hartutakoak: urpetik eta airetik egindakoak dira.

Herriko Larrano taldeko kide den Iñigo Gabiriak parapentetik ateratako Elorrioko aireko argazkiak daude batetik Iturri. Bestetik, Txomin Rivera argazkilari gipuzkoarrak Kantauri itsasoko urpean egindako argazkiak ere bildu dituzte Iturri kultur etxeko erakusketan. Irailaren 30era arte dago erakusketa kultur etxean zabalik. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

IRAILAK 24 22:00etan
EH SUKARRA
20 URTE BIRA
KONTZERTUA. Sarrera: 10euro.

IRAILAK 26 17:30ean
JOLAS TXOKOA
OLGETAN AISIALDIA EUSKARAZ
Kilimiska Taldea. Sarrera doan.

IRAILAK 28-29-30 20:00etan
GARAPENERAKO
IHDUNALDIAK
ZINE ZIKLOA. Sarrera doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

ROBOT MAITEA
Marie de Jongh

5 urtetik aurrera. Txikitxartelarekin doan

Irailak 26 • 2 pase 18:00

Guk ere iraila umeei eskaintzen diegu

San Agustin KULTUR GUNEA DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburudenda

11.04 601 07 76



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak.
Eguneko menua.
Menu bereziak.
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu 9, Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak jantokian: asteartetik igandera.
Afariak jantokian: ostegunetik larunbatera.
Razioak terrazan.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.




Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

Jatetxe gida



Ganeko Etxe

Elizondo z/g, Berriz
Tel.: 94 682 40 27

Aintzinako baserri baten gerizpe gozoan etxeko moduan sentitzeko.
Arrain errea kartan.
Eguneko menua: 8 euro



Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



Kanpazar Erretegia

Kanpazar gaina, Elorrio
Tel.: 94 658 29 12

08:00etatik 23:00etara zabalik.
Astelehen eta astearte gauetz itxita.
Astelehenetik ostiralera eguneko 11 euro



Goiuria Jatetxea

Goiuria auzoa, 21 Iurreta
Tel.: 94 681 08 86

Jatetxe guztiz berriztua. Eguneko menuak. Asteburuko menu bereziak.
Karta. Ospakizunetarako menuak: ezkontzak, enpresa bazkariak, ...
Aurrekontu guztietarako menuak.

KIROLAK >

Ilusioz eta erronkaz beteta hasiko du liga Tabirako Baqué

Mutilek Zornotzaren kontra ekingo diote EBA mailari, zapatuan; emakumeen taldean, gazteak Amaia Mendiogarai eta Amaia Huertaren hutsunea betetzen ahaleginduko dira



Mutilek iazko taldeagaz egingo diote aurre denboraldi berriari. Kepa Aginako

Ilusioz eta erronkaz betetako liga hasiko du asteburuan Tabirako klubak. Gizonek aspaldiko urteetako denboraldirik erakargarriena dute aurretik, iaz, hutsik gertatutako plaza bat aprobetxatuz, EBA mailarako igoera lortu zutelako. Mailari eustea erronka gaitza izango da, klubaren filosofiak etxeko jokalarietara mugatzen duen taldearentzat. Emakumeek urteetan taldeko erreferenteetako bi izan diren Amaia Mendiogarai eta Amaia Huerta barik ekin-

Zornotzak bost fitxaketa egin ditu, eta Tabirako Baqué iazko taldea mantendu du

go diote ligari, eta proiektu berria lantzen dabilta.

Gizonek Zornotza saskibaloitaldearen kontra hasiko dute denboraldia bihar, 18:30ean. Zornotzak bost jokalaritxatuz indartu du taldea. Tabirako Baqué iazko talde bera eramango du, baina prestaketa berezia egin dute denboraldi aurrean. Lan talde teknikoak eskatuta eta zuzendaritzak "ahalegin berezia" eginda, abuztu amaieran astebetzez Mundakan

kontzentratu ziren. Goiz eta arratsalde entrenatuz, EBA mailak eskatzen duen mailaren neurriko prestaketa egin zuten. Beraz, argi dago Tabirako Baqué hortzak estutzeko eta mailari eusteko eginahalak egiteko prest dagoela: "Guretzako maila berria da, profesionala eta lehiakorra. Disfrutatzen eta ikasten saiatuko gara, baina baita ondo lehiatzen eta dugun dena ematen ere", dio Hilario Perez klubeko presidentek.

Gizonek prestaketa berezia egin zuten abuztuan, Mundakan

Aurten Baqué Torneoa irabazi dute gizonek zein emakumeek

Baqué Torneoa irabazita

Aurten, udako Baqué Torneoa Tabirako Baqué irabazi du, emakumeetan zein gizonetan. Emakumeek joan zen asteburuan jaso zuten garaikurra, finalean Loiola menderatuta (64-58). Taldeak "proiektu berria du aurretik, erakargarria eta ilusioz betea". Orain, Olatz Perez eta Marina Maortuak hartuko dute taldearen gidaritzatza. Bihar Cafés Aitona izango dute arerio. ■ J.D.

Joseba Kerejeta, zortzigarren Munduko Txapelketan

Joseba Kerejetak ezin izan du 2008an irabazitako txapelketa berri. Kroaziako Mali Losinj irlan jokaturako Munduko Urpeko Arrantza Txapelketan etxekoak ziren faborito, arrain gutxi egotera gunerik onenak ezagutzen zituztelako, eta pronostikoak bete ziren. Daniel Gospic kroaziarrak irabazi zuen txapelketa.

Kerejetak lehenengo jardunaldia seigarren amaitu zuen, 9.000 puntugaz; sei pieza arrantzatu zituen. Bigarrena ez zen oso oparoa izan, eta 2.742 puntu bakarrik batu zituen (pieza bi), zortzigarren postuan amaituz. ■ J.D.

Durangoko bikote biak lehiatzen zezan

Durangoko San Fasuto Zesta Txapelketan jardunaldi garrantzitsua dator Durangoko bikoteentzat. Zapatuan, 18:30etik aurrera Bartzelonaren kontra lehiatuko dira, eta segidan Noain izango dute arerio. Lehenengo partidua irabazten duenak domekan Andoainen kontra jokatu du, 12:00etik aurrera.

Bestalde, joan zen zapatuan Arbe eta Salegi markinarrak 30-10 kanporatu zituzten Cabanillasko David eta Asiain; beste hainbeste egin zuten Noiangoa Iturbide II.ak eta Bailonek Aitor eta Abad getxoizarrarekin. Domekan, Mutrikuk eta Andoianek Gasteiz eta Lekeitio kanporatu zituzten. ■ J.D.

Liga hasiko dute areto futboleko lau taldek

Elorrioko Buskantzak Tecuni Bilbo bisitatuko du; Sasikoa Bk eta Kurutziagak derbia dute

Federazioak Nazional A mailan aurreikusitako duen birmoldaketak zuzenean eragiten die beheargoko mailetan jokatzeko duten eskualdeko taldeei; euskal taldeak jaitsiz gero, beste batzuk eron ditzakete herrestan, eta zazpi taldek galdu dezakete lekua, ohorezko B mailan zein euskal ligan. Aurten inoiz baino garrantzitsuagoa da liga ondo hastea.

Elorrioko Buskantzak Tecuni Bilboren kantuan jokatu du. Elorriarren helburua mailari eustea da, eta bilbotarra iaz galdu zuten mailara bueltatzea. Lau jokalarik utzi dute Elorrioko taldea eta beste hainbeste etorri

dira. Horietako bi bigarren taldetik igo dituzte: Ibon Salaberria eta Ander Garaizabal.

Sasikoa Bk eta Kurutziagak derbia jokatu dute. Aurrendenboraldi hobea osatu du Sasikoa Bk, baina derbietan sekula ez da jakiten. Kurutziagak sei jokalaritxatuz indartu du taldea. Horietako bi lehendik ere taldean ibilitakoak dira— eta beste gazte bat hartzeko asmoa dute.

Hiru urtean beste hainbeste igoera lortu dituen Mallabia Bastidak Tolosalaren kontra ekingo dio ligari, iazko talde beragaz. Gazte mailako jokalariekin osatuko dute taldea. ■ J.D.



Sasikoa Bk eta Kurutziagak derbia jokatu dute. A.Dominguez

Basurto hartuko du Berrizek futboleko

Basurtoren kontra jokatu du Berrizek etxeko lehenengo partidua aurtengo denboraldian. Ohorezko mailan talde biek berdindu egin zuten lehen jardunaldian. Berrizek puntu bat ekarri zuen San Pedoren zelaitik, bana berdindu ondoren, eta Basurto eta Apurtuarteren arteko partidua emaitza berdinean amaitu zuen.

Bestalde, goren mailan jokatu ez du Elorrioko taldea kikildu. Ortuellaren zelaian hiru puntuak batu zituzten, beste hainbeste gol sartuta (2-3). Bihar Galea taldea hartuko dute Eleizalden. ■ J.D.



Durango Ilarduyak denboraldiko argazki ofiziala aterako du bihar. Kepa Aginako

Ereserki berria aurkeztuko du Durango Rugby Taldeak

Bihar, klubeko taldeen aurkezpen ofizialean, Durangoko Udal Musika Bandak sortutako abestia entzuteko aukera egongo da

Zapatuan, 13:00etan, aurtengo denboraldiko aurkezpen ofiziala egingo du Durango Rugby Taldeak Rugby tabernaren aurrean. Horrela, Goienkaleko jaiak ere badirela aprobetxatuz, errugbia herritarrengana hurbildu asmoziaz hasitako bideari eutsiko diote.

Datorren urtean Durango Rugby Taldeak 25 urte egingo ditu, eta ospakizun berezi hori dela-eta, Durangoko udal musika bandak klubarentzat sortutako ereserki berria entzuteko aukera ere eskainiko dute, bandako musikarien eskutik: "Guk ezer eskatu barik, euren kabuz landutako musika da, eta guri ereserki aurkeztu zigutenean pozarren onartu genuen", azaldu du Joan Manuel Iriondo klubeko lehendakariak. Oraindik, musikari ez diote letrarik ipini, baina urtea amaitu aurretik letra ere prest izatea itxaroten dute.

Ereserkiak gainera, taldeek denboraldiko argazki ofiziala aterako dute, eta errugbi baloiak

zotz egingo dituzte bertaratzen direnen artean. Ondoren, 17:00etan, Durango Ilarduya eta Getxoren arteko neurketa dago aurreikusita.

Mailari eustea helburu

Durango Ilarduyaren bigarren taldeak zein kadete eta gazte mailako taldeek asteburu honetan ekingo diote ligari. Nagusiek, aldiz, urriaren 3an jokatu dute lehenengo neurketa, Oviedon. Aurten Durango Ilarduyako talde nagusiaren helburua "mailari eustea eta ahalik eta estuasun gutxien pasatzea da".

Emakumeen taldea —Arrasate-Durango deituko da aurtentzen— ere urriaren 3an hasiko da lehiatzen, baina aurretik, zapatu honetan, prestaketarako balioko dien torneoak jokatu dute Gastetzen, Euskal Herriko beste errugbi taldeekin batera. Emakumeen ligarako helburua lehenengo hiru postuetan geratzea da, estatu mailako ligan jokatzeko aukerak izan ditzaten. ■ J.D.

Rugby tabernaren aurrean egingo dute aurkezpena, eguerdiko 13:00etatik aurrera

Ereserkiak oraindik ez du letrarik, baina urtea amaitu aurretik prest izatea itxaroten dute

Partidurik galdu barik, liderra bisitatzera

Sailkapenean bosgarren dagoela, Sestao Riverren kontra jokatu du Kulturalak etzi

Liga oso ondo hasi duten talde bi lehiatuko dira, domekan, Las Llanas futbol zelaian. Sestao Riverrek orain arteko lau lehiak irabazi ditu, eta oraindik ez diote gol bakar bat ere sartu. Kulturalak ere sasoiko ekin dio ligari; bosgarrenak dira eta oraindik ez daki porrota zer den.

Sestao River taldeak partidu guztiak irabazi ditu orain arte, eta ez du gol bat ere jaso

Joan zen asteburuan berriz ere markagailuari buelta eman zion Durangoko Kulturalak. Sailkapenean puntu bakarragaz azkenaurreko dagoen Santurtzi aurreratu egin zen markagailuan. Iker Martinezek lehen zatia amaitu aurretik berdinketa ezarri zuen.

Bigarren zatian azken ordu-laurdena heldu aurretik Muniozguerenek buruz errematatu eta Kulturala aurreratu zuen markagailuan. Hirugarren gola luzapenean lortu zuten, penalti baten bitartez. Santurtzi taldeak bederatzi jokalarigaz amaitu zuen partidua. ■ J.D.

Mikel Bilbao

• Radio Euskadiko kazetaria



Bete eta ase

Adituarentxokoa

Hainbat pilota lehia izango da Durangaldean egunotan, askotarikoak eta "exotikoak". Haste-ko, One Wall sariketa egingo dute lurretan asteburu honetan, eta hurrengo abentura bereziagoa izango da: Front Wall sariketa. Joan zen udan New Yorkeko Central Parkean jokatu zen lehiaketa bati esker jakin genuen modalitate honen berri, eta orain Ezkurdi frontoian hartuko du lekukoa, Sanfaustoetan; hemen irabazten dutenek Angelun jokatu den fase erabakiorrerako txartela lortuko dute.

Sarrerakoak balira, bigarren platera eta postrea ere baditugu. Urriko bigarren astean nazioarteko trinketeko jokalaririk onenak etorriko dira Abadiñoako Tornosolara: Waltari, Loquillo eta Mikel Gonzalez berriztarra eta Rober Uriarte eta Ander Antxia Abadiñarrak. Aldi berean, munduko pilota kontseiluak pilotari amateurren nazioarteko txapelketa antolatu du.

Ezin ahaztu urrian jokatu den zesta-puntako munduko txapelketa ere, eta ez da harritzekoa izango partidurik garrantzitsuenak Ezkurdin jokatzeko. Durangoko zaleek Felix beteranoa eta Elizegi durangarra agurtzeko aukera izango dute.

Olazar eta 25 urte egin dituen Baqué (zorionak) txapelketak ere jokatu dira, gainera, profesioletarako bide zuzenak biak.

Menua ugaria da. Gozatzeko garaia da!

Soka nasaituko du Abadiño sokatira taldeak

Pisurik baxuenaren prestaketa, 560 kilorakoa, ez da orain arte besteko zorrotza izango

Asteon bueltatu da entrenamenduetara Abadiño Sokatira Taldea. Aurten 600, 640 eta 680 kilora arteko goma gaineko txapelketak urtero legez prestatuko dituzte, baina 560 kilora artekoa ez da hain zorrotza izango. Pisurik baxuenera egokitzeke 15 kilo kendu behar izaten dira sarritan, eta, eskakizun handi hori nasaitu guran, aurtengo pisu horretako taldea moldatuko dute. Aldaketak aldaketa, taldea iazko urte biritan

bila errepikatzen saiatuko da aurtengo. Zortziko txapelketei ekin aurretik, urriaren lauroko txapelketak jokatu dituzte: 320 eta 300 kilora artekoak.

Bestalde, Abadiño Sokatira Taldea tiralari berrien bila dabil. Aste honetatik aurrera martitzenetan eta eguenetan entrenatuko dute Abadiñoako probalekuan, 20:00etatik aurrera. Interesa duen edonor orduantxe hurreratu daiteke izena ematera. ■ J.D.



Asteon bueltatu dira entrenamenduetara tiralariak. K.A.

Lau t'erdian inoiz baino pilotari gehiago Olazar Pilota Txapelketan

Eskaria handia denez, ia bibidertu egin dute lau t'erdian parte hartuko dutenen zerrenda; Euskal Herri osoko gazterik onenak dabilta lehiatzen Zaldibarko pilotalekuan



Etorkizun handiko pilotariek jardungo dute lehia. K.Aginako

Olazar Pilota Txapelketaren 23. aldia abian da, lau t'erdian eta binaka. Euskal Herriko pilota txapelketen egutegian Olazarrak hartu duen izenaren eta garrantziaren isla da pilotarien artean urtero pizten duen interesa. Aurten, eskari ugari zelanbaiteko irtenbidea emateko asmoz, lau t'erdiko zerrenda ia bibidertu egin dute (12tik 22ra). Batez ere, gazte mailetan ondo dabilta-nei eman diete aukera. Horrela,

Parte-hartzaile gehiago dagoenez, hilabete bat lehenago ekin diote txapelketari

etorkizuneko izarrak izan daitezkeenak bertatik bertara ikusteko aukera eskainiko du Zaldibarko txapelketak.

Pilotarien zerrenda inoiz baino zabalagoa denez, ohi baino hilabete lehenago abiatu dute txapelketa. Kanporaketak eguenero jokatu dira, 21:30etik aurrera. Finalak, beti legez, abenduaren 31n jokatu dituzte.

Lau t'erdian ez da erraza txapelketa nor izan daitekeen asmatzea. Iaz Cafés Baqué txapelketako gazte mailan txapel-

dun eta azpitxapeldun geratu ziren Joseba Ezkurdia eta Iban Jauregi faboritoen zerrendan sartu behar dira, Peñas eta Aurtentxegaz batera.

Binaka ere lehia gogorra

Binaka 12 bikote lehiatuko dira, eta Durangaldeko hiru pilotarik parte hartuko dute. Horietako bik bikotea osatuko dute: Azpiri eta Landaburu elorriarrek, hain zuzen ere. Andoni Aldape mallabitarrak, berriz, Andreu azkoitia-rragaz jokatu du.

Txapela janzteko faboritoei dagokionez, Onsalok eta Zubirik bikote sendoa osatzen dute; baita Larrañagak eta Zabaletak ere. Hala ere, bikote elorriarra ez da atzera geratzen; maila onean dabilta eta sarritan jokatuko dute elkarregaz. Berea emanez gero, txapelketan urrun helteko aukerak daukate.

Olazar Pilota Txapelketaren joko sistema urterokoa da: mailakatu —pilotari batzuk besteak baino lehenago hasiko dira— eta kanporaketen bitartez garatuko dena. ■ J.D.

Durangaldeko hiru pilotarik parte hartuko dute txapelketan

Auto klasikoak bertatik bertara ikusteko aukera

Gaur eta bihar 25 urtetik gorako auto klasikoekin gozatzeko aukera izango da Durangon eta Durangaldeko hainbat herritan



Iurreta, Durango eta Abadiñoko alkateak aurkezpenean.

Gaur eta bihar X. Klasikoen Rallya korrituko dute, Durango-ko Ezkurditik abiatuta. Guztira, estatuko hainbat txokotatik etorritako 70 klasiko batuko dira eta, horrenbestez, "kantitateari zein kalitateari dagokionez, espainiar estatuko mota honetako ekimenik garrantzitsuena da", Clasicas Durango elkarteak kideek azaldu dutenez. 60ko

Zapatuan 50 urtetik gorako autoak ikusgai egongo dira Landakon

hamarkaditik 1985era arteko alerik onenak batuko dira: AC Cobra, Alpine, MG, Mini, Lancia, Porsche, Alfa Romeo...

17:00etatik 20:00etara, auto guztiak Landako Erakustazokan ikusgai egongo dira gaur. Segidan, Ezkurdi plazatik lasterketari ekingo diote; ibilbidea oraindik ezagutzera eman ez

Agenda

FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Berriz - Basurto

Domekan, 11:30ean,

Berrizburun

GOREN MAILA

Elorrio - Galea

Zapatuan, 17:00etan,

Eleizalden

LEHENENGO ERREGIONALA

Iurretako - Baskonia

Zapatuan, 17:00etan,

Larrakozelain

ARETO-FUTBOLA

NAZIONAL A MAILA

Sasikoa - Zierbana

Zapatuan, 19:00etan,

Landako kiroldegian

EUSKAL LIGA

Kurutziaga Ikastola -

Sasikoa Durango B

Zapatuan, 17:10ean,

Landako kiroldegian

Mallabia Bastida-

Tolosala

Domekan, 17:30ean,

Zaldibarko kiroldegian

BIGARREN ERREGIONALA

Dantxari -

Colegio Vizcaya

Zapatuan, 17:00etan, Lanbide

Heziketako Institutuan

SASKIBALOA

EBA MAILA

Zornotza -

Tabirako Baqué

Zapatuan, 18:30ean,

Zornotzako kiroldegian

NAZIONAL A MAILA

Tabirako Baqué -

Cafés Aitona

Zapatuan, 17:00etan,

Landako kiroldegian

PILOTA

SAN FAUSTO ZESTA

TXAPELKETA

Bartzelona - Durango B

Noain - Durango A

Zapatuan 18:30ean, Ezkurdi

Jai Alai pilotalekuan

Andolan - (Bartzelona-

Durango B)

Domekan, 12:00etan, Ezkurdi

Jai Alai pilotalekuan

OLAZAR TXAPELKETA

Lau t'erdian:

Dorronsoro - Otamendi

Arrieta - Elezkano II

Ansotegi - Jauregi

Irailaren 30ean, 21:30ean,

Zaldibarko pilotalekuan

Abasolo lehen hamarretan sartu daiteke Euskaldun Torneoan

Zazpi hilabete eta 27 lasterketaren ondoren, asteburu honetan amaituko da txirrindulritzan Euskaldun Torneoa, Urretxun korrituko duten lasterketagaz. Paul Kneppersek segurtatuta du txapela, baina atzeragoko postu batzuk oraindik guztiz erabaki barik daude. Esaterako,

Hamargarren postua puntu bakarrera du abadiñarrak

Cafés Baquék hiru txirrindulari sartu ditzake lehenengo hamarren barruan. Borja Abasolo abadiñarra eta Daniel Ruiz argentinarra hamargarren postutik puntu batera eta hirura daude, hurrenez hurren. Talde bereko Juan Sebastien Tamayo laugarren dago.

23 urtez azpiko txapelketa orain asteburu bi amaitu zen, eta Borja Abasolok seigarren eta Daniel Ruizek zortzigarren amaitu dute. ■ J.D.

laguntzaileak



ABADIÑOKO UDALA



ATXONDOKO UDALA



DURANGOKO UDALA



ELORRIOKO UDALA



MALLABIKO UDALA

LAUHANKA[>]



Txakurra urteetan aurrera doanean, geroago eta zainketa handiagoa

Arazo fisikoak ugartuko zaizkio eta hurretik jarraitu beharko dira bere ibilerak; pasiboago bihurtuko da txakurra

Albaitariaren kontrola gutxienez urtean birritan pasatzea da gomendagarriena

Zahartzaroan txakurrek dituzten arazo eta beharrak areagotzen dira. Horregatik, euren bizimodu hobetu eta biziraupena luzatzeko helburuz, zainketa bereziak kontuan hartu beharko dituz jabeak. Arrazaren arabera, adin bat edo bestera heldu daiteke animalia hau, baina badaude horretan eragiten duten kanpoko faktoreak ere: elikadura eta ingurunea, batez ere.

Gainera, izaeran ere aldaketak jasan ditzake –pasiboago bihurtu edo etxekeenganako hartu-eman okertu– eta horrek gaitzago egingo du bere zainketa. Lana izango dugu, beraz.

Albaitariarengana

Kontuan hartzeko lehenengo neurria albaitariaren kontrola da, odolaren analisisa eta egoera fisikoaren azterketa eginez, besteak beste. Gomendagarriena

kontrol hori gutxienez urtean birritan pasatzea da.

Gogo falta

Jateko gogoa gutxitzen zaion ala ez ikusi behar dugu. Normalean, egoera hori gaixotasun bategatik, hagineta minagatik edo mugikortasun faltagatik ematen da. Baina, kontrara, ez mugitzeak larregi loditzea ere ekarri dezake.

Artikulazioetako minagaz ere asko kostatuko zaio ibiltzea, eta, horregatik, komenigarria da lo-lekua eta jatekoa beragandik gertu ipintzea.

Zentzumenek txarrera egiten dutenean

Zahartzaroaren beste ondorio esanguratsu bat bere zentzumenek txarrera egitea da. Gauzak dastatzeko, entzuteko eta ikusteko arazoak izan ditzake txaku-

rrak adin batetik aurrera. Hori dela-eta, komenigarria da kalera ateratzerakoan atentzio handia ipintzea; batez ere, galdu ez dadin eta istripurik eduki ez dezan.

Jarraipen zehatza eta maitasuna

Hurretik jarraitu beharreko beste kontu pare bat azazkalak eta txiza egitea dira. Azazkalen kasuan, denboragaz azal azpian enkistatu egiten zaizkie, eta horrek min oso handia sortu diezaike txakurrari. Txizari dagokionez, gorabeherak izan ditzazke kontrollean, eta badaezpada gehiagotan atera beharko dugu kalera.

Edadeagaz batera, txakurrak sentiberago bilakatzen dira, eta jabeen partetik emandako maitasunak arazo asko konponzen lagundu dezake.

Jateko gogoa txikitu dakioke, hainbat faktoregatik

Entzuteko, ikusteko edo dastatzeko arazoak izan ditzake

EUSKADIN KALITATEAREN IKURRA K HIZKIA DA



www.euskolabel.net

Eusko Labelaren K-rekin
Gure lurreko elikagai aukeratuak, mimo handiz ekoiztuak, hasieratik bukaeraraino kontrolatuak eta benetakotasunaren berme guztiekin.

Kalitatea Fundazioa



Zu zaintzeko zaindua

- | | | | | | | | | | | | |
|---|--|---|--|---|---|---|--|----------------------|--|--|--|
| Euskal Okela
Carne de Vacuno del País Vasco | Euskal Esne Bildotsa
Cordero Lechal del País Vasco | Gernikako Piperra
Pimiento de Gernika | Hegaluzea eta Hegalaburra
Bonito del Norte y Atun Rojo | Euskal Baserriko Arrautza
Huevo de Casena Vasco | Euskal Baserriko Oilaskoa
Pollo de Casena Vasco | Euskal Esnea
Leche del País Vasco | Ibarrako Piparrak
Guindillas de Ibarra | Eztia
Miel | Euskal Tomatea
Tomate del País Vasco | Arabako Patata
Patata de Alava | Euskal Babarrunak
Alubias del País Vasco |
|---|--|---|--|---|---|---|--|----------------------|--|--|--|

Eusko Labela: ona den seinale



Euskal Okela inguruko harategi hauetan aurkituko duzu

- | | |
|--|--|
| Abadiño
• PINILLA HARATEGIA
TRAÑABARREN, 29-MATIENA | Durango
• GALLASTEGI HARATEGIA
ANTSO ESTEGIZ KALEA, 1 |
| Zaldibar
• GALLASTEGI HARATEGIA
ZALDUASOLO PLAZA, 8 | • INAKI HARATEGIA
SASIKOA KALEA, 10 |
| Otxandio
• GAZTAÑETA HARATEGIA
ARTEKALE, 25 | • OKA HARATEGIA
ANDRA MARI, 3 |

Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak

Especializatuak: Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak

hile honetako irabazlea:



Cristina Gomez Alcibar (Durango)

Kalitatezko euskal produktuekin betetako saski baten zozketan parte hartzeko "Eusko Label" zigilua duen produkturen baten etiketa zure datuekin eta telefonoarekin batera bidali hurrengo helbide honetara:

Erref.: "Eusko Label Saskia"
Anboto Astekaria
Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta

Hilero azken astelehenean saski bat zozketatuko dugu hurrengo produktuekin: kilo 1 Arabako Babarruna, pote 1 "Ibarrako Piparrak", pote 1 Ezti, Idiazabal gazta, botella 1 "Bizkaiko Txakolina", botella 1 "Arabar Errioxako Ardoa", botella 1 Arabar Errioxako Olla Birjina, Txakalinezko bonboi-kutxa 1 eta 30€ko txartel 1 Euskal Okelaz, Euskal Esne Bildotsaz edo Euskal Baserriko Oilaskoz trukatzeko.

"Handia da gure adinean horrenbeste poz ematen digun jarduera edukitzea"

Bikote honek duela lau urte hartu zituen lehenengoz golfeko makilak; orain astebururo ibiltzen dira golfean

Oporretara irten aurretik egon gara Begoña Kerejeta eta Joaquin Barandiaranegaz berbetan. Maletetan golfean jolasteko arropa ugari sartu dituztela diote. Urtebetez etan, gabonetan... eurei opariak egitea erraza dela diote; golfagaz zerkusua daukan zer edo zer egin, eta eurak pozik! Bizitza aldatu dien kirola da golf; ia astebururo ibiltzen dira Nojan, jo eta ke.

Zelan hasi zineten golfean jolastean?

J. Barandiaran: Begok sartu ninduen ni. Medikuek golfean jokatzeke gomendatu zioten. Ibiltzea komeni, eta paseoan San Agustinetik aurrerago joateko alperra izaten zuen. Nojan etxea daukagu guk, eta golf zelaia zabalduko zutela jakin zue-nean, nikezer jakin barik, izena eman zuen golfeko klubean. Handik hamar hilera hondartzara bidean golf zelaia zabaltzen zutela ikusi nuen, eta orduan jakin nuen Bego hamar hile lehenago apuntatu zela! Biok animatu ginen.

Askotan jolasten duzue?

B. Kerejeta: Ia astebururo egoten gara Nojan, eta urte osoan jolasten dugu, bai! Eguenetatik domeketara joaten gara, eta euria egiten badu ere han ibiltzen gara, euritako arropagaz! 4-5 orduan egoten gara bertan.

Dena dela, asko mugitu zarete batera eta bestera...

Dimara ere joan gara, Dimagolfer, Errioxara, Salamanca, Huelvara, Portugalera... leku askotara joan gara. Zelai publiko batzuen bazkideak gara, eta hori

horrela izanda merkeago irtetzen zaizkigu beste zelaiak.

Kirol garestia izateko fama dauka golfak.

Garestia da, baina bazkide eginez gero, ez da horrenbeste ordaindu behar. Nojan guk astean zehar hiru euro ordaintzen ditugu, eta asteburuetan lau. Iatrago

bana hartzea baino merkeagoa da guretzat!

Engantxatu egin zaituzte benetan!

J.B.: Bai, eta hori nik lehenago telebistan ikusten nituenean edo zer esaten niela! Han, makila haregaz eta pilotagaz ikusten nituenean...

Begoña: Baina orain... torneotara eta saltsa guztietara apuntatzen gara! Nojan domeketan jolasteko torneoak bakarrik daude, eta beti ematen dugu izena, bestela, jolastu barik geratzen gare-lako domeketan! Batzuek jolastu baino ez dute egiten, baina guri torneotan jokatzea gustatzen zaigu, han beste saltsa bat dagoelako.

Asko kostatu zitzaizuen golfean ikastea?

J.B.: Nik pilotan eta palan jolasten nuen lehenago, eta irakasleak jolasten ikusi ninduenean ea lehenagotiko jolasten nuen galdetu zidan. Inoiz kirol horietan jokatu duenak abantaila dauka, pilota jotzerakoan igartzea errazagoa delako.

B.K.: Bai, baina txarrrena da palan jolastu duenak ohitura batzuk hartuta dituela, eta makilari helteko modua eta guz-

tiz desberdinak direla!

J.B.: Lagun asko egiten duzu golfean, eta denek erakusten dizute zer edo zer.

Zuen buruari erronkak ipintzen dizkiozue?

J.B.: Lauko taldeetan ibiltzen gara, eta lehia bi dituzu; bata zure buruagaz zeure marka hobetzeko, eta bestea zure ingurukoekin. Nojako jaietan irabazi nuen torneoan hainbat mailatako jendea geunden, eta saritzen zena ez zen zenbat golpe egiten genuen, gure markak zenbat hobetzen genituen baino.

Koadrilatxoak sortu duzue.

B.K.: Oso giro ona daukagu Nojan. Denok gara ezagunak, eta gero beste kontu askotarako batzen gara.

J.B.: Aurrekoan basararak batzen egon ginen, eta patxarana egin genuen.

B.K.: Guretzako itzela izan da. Handia da gure adinean horrenbeste poz ematen digun jarduera bat topatzea. Jubilatutako berri dagoen jende askok ez daki zer egin!

J.B.: Pena da, baina hemen inguruan zelai gutxi dago. Hiriburuen inguruan egoten dira gehienak, eta hemen Diman, Oñatin eta Legutio bai, baina bestela... udalek ez dute ikusten zenbat jende mugitzen duen kirol honek!

Joaquin Barandiaran eta Begoña Kerejeta

Elorriarrak

Golfean ibiltzen dira, torneorik torneo



Aitor Aurrekoetxea
Irakaslea

Artea

Iraultza frantsesaren ondoren artea demokratizatu egin zela esan genezake; dirudunak ez ezik, gainontzeko herritarrak ere hasi baitziren saloietara joan eta artelanez gozaten. XX. mendean, eta batez ere azken bi hamarkada hauetan, ohitu egin gara arteaz inguratuta bizitzen; eta ez soilik eremu publikoetan, baita eremu pribatuetan ere. Artea gure etxeetan sartu da eta beste hainbat gauzekin suertatu ohi den moduan, arte kontsumitzaile bihurtu gara.

Gehienok daukagu zerbait eskegita etxeko paretetan; batzuek litografia, serigrafia edo grabaturen bat, eta beste batzuek hainbat tamainako oleoren bat, edo plinto eder batean kokatutako eskultura maitagarriren bat.

Dena den, esan beharra dago arte bildumazale izatea dirua izatearekin lotu ohi dela, baina niri baieztapen hori zalantzan jartzea gustatuko litzaidake; izan ere, gaur egun badaude autore batzuk onak direnak eta oraindik ez oso ezagunak, eta horregatik artelan eskuragarriak egiten dituzte. Nire ustez, horiek ere aukera bat merezi dute; eta batek daki, beraien lanen bat orain erosiz gero, urte batzuk barru (agian, artista inportantea bilakatzen bada) ez ote dugun gurean merke lotutako artelan garrantzitsua izango.

Jakina, nire proposamenak ez dauka inolako izaera espekulatiborik, nire asmoa ez baita lerro hauen bidez artearen merkatuaren aldeko jarrera bultzatzea. Aitzitik, herritarrak arteaz gozatzera gonbidatu nahiko nituzke, estetikoki erakargarria izan daitekeelako eta, bide batez, artista gazteren bat edo hain gazte ez denen bat laguntzeko aukera ona.

Beraz, anima zaitzete arteaz besterik gabe disfrutatzera, horretarako tenorea duzue-eta!





Gora San Migelak!

Hurrengoa Durangon Fco. Ibarra, 11an

Bixente Kapanaga 19, behea • 48215 IURRETA • Tel.: 94 681 66 73 • www.zarateyelexpe.biz